



BARREN
TOKIKOM

Lanaren fruitua

Antonio Iparragirre eta Pakita Urbieta



ESKERRIK ASKO, DENOI!

Zuei esker **1.800** opari baino gehiago banatuko ditugu Elgoibarko Izarraren aldeko tonbolan.
Zuei esker, abenduaren 24a aurten ere berezia izango da:
Mila esker, Elgoibar, eta Kalegoen plazan bilduko gara!

2. Estankoa / 40-15 Tenis Elkarte / Aerotxuri S.L. / Agurtzane ileapaindegia / Ainara Arnaiz / Ainhoa fisioterapia / Aitor Badiola (Serious Business) / Alberto Gonzalez / Alcorta Forging Group / Aldaz hortz klinika / Alire estetika / Alkorta Bakailaoak / Altzola Berazeta baserria / Amagoia gozo denda / Ametsa kafetegia / Ana Mosacula / Andoni Segundo / Andres Alberdi / Anton Urreisti / Anua errektifikatuak / Amaia Mendikute fruta denda / Aranburu bitxi denda / Arauri lurrindegia / Arilan mekanizatu zentrua / Armueta harategia / Arriere De La Maison De Izaro / Arrizabal Elkarte / Asiatorr / Astigarraga kirolak / Asier Riesgo / Aterpe taberna / Azkue argazkiak / Barrenetxea Etxeberria botika / Beitia Arriola fisioterapia / Beitia Arriola hortz klinika / Belaustegi jatetxea / Bersistain Logistika Banaketa / Bersistain mekanizatuak / Berkoa / Bitxibitxi / Bizkor bizikletak / BM Complet / Bronymec / C.D. Elgoibar / Caramel goxokiak / Castrillejo estankoa / Cometel / Cristina Garcia estetika eta Terapia Naturalak / Danobat / Dantzan.eus / Darama bitxiak / Denetik bazar txinatarra / Doña Mercedes okindegia / Ecnarro lantzeria / Egondo / Egur arte tailerra / Eibar Futbol Taldea / Eizagirre okindegia / El Bronx / Elena ileapaindegia / El Gautxo taberna / Elgoibar1936 / Elgoibar Ikastola / Elgoibarko Izarra / Elgoibarko Udala / Elgoibarko Udal Ludoteka / Emilia Nogales / Eñaut Elorrieta / Eroski Maala / Errigora / Errosario Hortz Klinika / Errotonda okindegia / Eskuz arte tailerra / Esther Ibarguren / ... Eta kittto! Euskara Elkarte / Etxekit / Etxepe / Etxe-Tar / Euskaltzaleon Topagunea / Exclusivas Pelegrin / Fadek ileapaindegia / Farmalau parafarmazia / Ferpi Modak / Fotero okindegia / G&M jantzi denda / Gabi jatetxea / Gabiri design / Gaindu / Garate jantzi denda / Gararock / Garbiñe estetika / Garitaonandia botika / Gobike bizikleta denda / Gotzon Barandiaran / Grupo Eibar / Gure Esku Dago Mendaro / Hair's ileapaindegia / Haritz Euskal Dantzari Taldea / Herri Eskola / Hurbil informatika / Ibai-Ondo erretegia / Ibarrenea okindegia / Idama ileapaindegia / Ideko / Idoia Azpilikueta / Ikus optika / ILS akademia / Ilunpe taberna / IMH Museoa / Iñigo Azpiroz / Ipintza margoak / Irati Agirreazaldegia / Iria jantzi denda / Iriondo altzariak / Iriondo kirolak / Iriondo taberna / Irune Arriola Andonegi botika / Isleder / Iturri taberna / Ixa Rodriguez / Izakara estudioa / Jai Alai taberna / Jakoba Errekondo / Jasone Osoro / Jesus Mari Makazaga / Jon Gurrutxaga / Jonathan Martin / Jose Alberto Eguren / Jose Antonio ileapaindegia / Juli Arregi / June Loidi / Kala loradenda / Karakate jatetxea / Kemen belardenda / Kilimon Trail (MTE) / King-Kong taberna / Kiroldegiko taberna / Kopilan / Kutxabank / Laboral Kutxa / Lagun Taldea Txirindulari Elkarte / Lagunak koltxoi denda / Lanbroa taberna / Larre okindegia / Lauko / Leen Rose / Leire Garate (Orio Arraun Elkarte) / Lerun jatetxea / Lurdes ileapaindegia / Maala kafetegia / Magi Bitxiak / Maite Maioira / Maite Rementeria / Manahmana / Manzisidor S.L. / Mapfre /

Elgoibarko Izarraren aldeko

TONBOLA

Abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera
Kalegoen plazan



ELGOIBARKO IZARRA
Euskaltzaleon Topagunea

Marcajes Telleria / Maria Urizar ileapaindegia / Marian fruta denda / Markel Bergara / Mari Jose San Millan / Mausitxa gaztandegia / Mautitxa txaranga / Mekanosa / Meraki ileapaindegia / Merino konponketak / Mendaroko Udal Liburutegia / Metala Industriak / Mikel Gurrutxaga / Milar Bire elektrogailuak / Mintxeta Atletismo Taldea / Miquela merzeria / Moma jantzi denda / Monimbo / Morkaiko Mendizale Elkarte / Munlet / Muruamendiaraz gozotegia / Mutua General de Seguros / MTE Enpresa / Nalai oinetakoak / Oin Berri podologia zentroa / Olaia Martinez estetika / Ongi iturgintza / Oihane Osoro interiorismoa / Otzak taberna / Otzarreta harategia / Patxi harategia / Pikumek / Pitxintxu opari denda / Roteta elektrizitatea / Rural Kutxa / Sagarmiña baserria / Sahatzu harategia / Salento pizzeria / Sanlo eskubaloi taldea / Sara fruta denda / Sara jantzi denda / Sare fisioterapia / Sigma jatetxea / Sinuöse kultur elkarte / Soarte argazkiak / Su Ta Gar / Suministros Evia / Surya belardenda / Swislan / Talleres Mecanicos J.Larrañaga / Tantaka taberna / Taupada antzeztaldea / Txankakua merkatari elkarte / Txarriduna jatetxea / Txillarre eko denda / Txomin harategia / Unanue merzeria / Usua terraza / Uxue Alberdi / Uzuri optika / Vanesa Mateos / Viento Sur gastroteka / Xarlem Creations / Yudego Farmazia / Zalao Arnaiz / Zazpi Informatika / Ziarda harategia / Zu+Ni / ...

Elgoibarko Izarraren **TONBOLA**

1.800 erregalu baino gehiago, Kalegoen plazan.

Taloak eta salda beroa. Olentzero eta Mari Domingi.
Eta gu, elgoibartarrok, aparteko herri-giroarekin gozaten! Etorri zu ere!



Otarak



Boxeo eskularruak



Maletak



Opari bonoak



Anton Urreistiren koadroa



Ile lehorgailua



Bizikletak



Marrazkiak



Liburu, kamiseta
eta giltzatak sortak



Txakolin botila kaxa



S.D. Eibar kamiseta



Ilea lisatzekoa



Telebistak



Kafetera



Botilenzako
kaxa



Gril parrilla



Esneak eta gailetak



Orio Arraun Elkartearen kamiseta,
sudadera, eta posterrak



Munlet cd-ak



Aire-gozagarriak



Hortzetako eskulak



Hortz garbigailu elektrikoa



Ardo eta txakolina botilak



Sofa

... eta
opari
gehiago!

Gabon zoriontsuak guztioi!



Albitxuri Industrialdea, 10
20870 Elgoibar
943 743 404
www.egondo.com



Ingeñeris
Jurdes

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10
943 256 105

*Gabon
Zoriontsuak*



*Eskerririk asko
elkarrekin igarotako
urteagatik*

A cartoon illustration of a man with a beard, wearing a dark coat and a hat, carrying a large yellow sack full of gifts. He is holding a gift box in his right hand and waving with his left. The background is white with red stars and snowflakes.

*Gabon
zoriontsuak!*

NAVA
NPRIMATEGIA
Santa Ana, 44 - 208
Telf. eta Faxa: 943 744 451
E-mail: nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

AHAL DUGU
ELGOIBAR
PODEMOS

*Zorionak
eta
Urte Berri On*



Argazki: Gabon Zahar 2018

JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea



Txoriak txori

egiteko musika eskaintzen digute, gehienetan arrek, inoiz beste txoriak erakartzeko, inoiz arriskua jakinarazteko, baina ez diegu kasu handirik egiten. Esaterako, beleek karranka egin ohi dute, usoek urruma, hontzak ulu, mikak karraka... Aspaldian, ordea, bestelako tratua zuten gurean. Euskaldun askok, bereziki baserritarrek, ahotan izan ohi zuten atsotitzetan (*Munduan nahi duenak luzaroan bizi, oiloekin ohera eta txoriekin jaiki; Okila kantetan, euria ateetan; Eperra mingainetik galtzen da; Azkar eta ondo usoak egiten du hegan; Hostoak erori, habiak ageri...*), eta soloak lantzeko garaian, edo pertsona baten izaeraz mintzatzean, txorien izenak erabiltzen zituz-

ten. Adibidez, lotu ezinik ibiltzen zenari, ipurdikara esaten zioten. Isildu ezinik egoten zenari, pitxartxar. Pertsona argalari, ezerezari, txirta. Txikerra, bihurria bazen, txepetxa. Halarik ere, badaude beste asko belatz gorria bezala, zeruan zintzilik, orekan; zapelatzta, argi indarretako kabletan pausatuta; basahateak, Kua! Kua!, aitita-amamak eta umeekin berriketan; martin arrantzalea, gezi baten antzera begien aurretik urdinaren ederra marraztuta uzten duena; sasoi batean mezuak bidaltzeko, eta hiri-herri guztietan, horren ugaria den haitz usoa; edo euskaraz oso izen bitxia duten itsasokoak: marikoi handia, marikoi isatslaburra, potorro arrunta, potorro txikia... Horiek denak gure txoriak dira, eta arrasto handia utzi dute euskal kulturari, eta asko zor diegu.

Hamar mila txori espezie omen daude mundu osoan. Penintsulan seihun eta hirurogeita bederatzigintza inguru; baina zenbat ezagutzen ditugu laurogei kantako txori gizajoa kenduta? Askotan gure ondoan egon ohi dira, baina ez gara jabetzen. Pasealdia atseginago

*“Beleek karranka egin ohi dute, usoek urruma, hontzak ulu, mikak karraka...
Aspaldian, ordea, bestelako tratua zuten gurean”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskal Leheren Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztapen ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDONIA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
1983

Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► 2019KO JUBILATUEN ASTEA

Eskerrak eman nahi diogu aurten ere dena oso ondo irteten lagundu digun lagun-taldeari. Eskertzekoa izan da katekisten lan bikain eta astuna, txokolatada eta bazkari jendetsuetan; Udalaren babesa, alkatearena, zinegotziena eta Kultura eta Euskara saileko teknikariena, bai eta zabalkundean lagundu digun prentsa-rena ere: BARRENEko denak, Aitor Zabala (*Diario Vasco*) eta Jabi Leon (*Noticias de Gipuzkoa*). Baita Loredi Salegi, Javier Vargas, Inma Mugerza, Gotzon Garate Udal Liburutegia, San Bartolome Parrokia, Eguneko Zentroa, Nagusilan, Brigadako langileak, Gurutze Gorria, DYA, tabernako Pedro eta Manoli, Eguren orkestra, Batzordeko gizon eta emakumeen, eta aparteko pertsona borondatetsuen ahalegina ere. Denen ahalegina batuta, Jabilatuen Astea egin ahal izan dugu.

Jubilatuen Biltokiko zuzendaritza

► ESPETXE POLITIKAN TRABATZE ETA ATZERAPENIK EZ!

Euskal Herriko foro sozialak egindako txostenean aurrerapen gutxi ikusten da euskal preso en egoerari dagokionez.

Oro har, graduen kontuan eman da aurrerapen handiena: orain dela 17 hilabete preso en % 92 zegoen lehen graduan. Gaur egun, % 61. Preso gaixoen atalean albiste onak izan badira ere (Aitzol Gogorzaren etxeko espetxealdia eta Asier Aginakoren zigorraren suspensioa), hiru preso gaixo hil dira denbora tarte honetan: Oier Gomez, Juan Mari Mariezkurrena eta Jose Angel Otxoa de Eribe. Adin nagusiko preso en atalean (Sebas Etxaniz gure herritarra kasu) ez da aurrerapen eman. Euskal presoak sakanaketa politikak bere horretan dirau: 25 preso "hurbildu" dituzte Asturias, Logroño, Soria... espetxeetara.

Ordua da salbuespeneko espetxe politika aldatzeko. Azken urteetan indar metaketa gorpuztea lortu da preso en eskubide en inguruan: eragile sozial, sindikal eta politiko askoren adostasuna lortu da. Orain hitzetatik ekintzetara pasatzea lortu behar da, batez ere une honetan elkarriketetan murgildurik dauden alderdi politikoak. Eta gizarte zibila da, bere presioarekin, hori lor dezakena.

Ildo honetan hainbat ekimen antolatu ditugu Gabonetarako:

- Abenduaren 24an, Lanbroa tabernan elkartuko gara 18:00etan, Olentzeroren kalejira hasteko.

- Sebas Etxanizen askatasuna eskatzeko elkarretaratzea egingo dugu Kalegoen plazan, 20:00etan.

- Ildo berean, giza-katea egingo dugu Gabon Zahar feria egunean, hilaren 28an. Kalebarren plazatik hasita.

- Urtarrilaren 11n manifestazio nazionala egingo da Bilbon. Elgoibartik autobusak aterako dira. Izen ematea Jai Alai eta Lanbroa tabernetan egin ahal da.

Preso en aldeko urratsak emateko ordua delako, guztion artean lortu behar dugulako eritimoa bizitza...animatu eta parte hartu!

Sare Elgoibar

► OHARRA

Datorren astelehenean, abenduak 23, hartuko ditugu Eguberrietako oporrak, eta urtarrilaren 2an itzuliko gara lanera. Hurrengo alea urtarrilaren 10ean jasoko duzue.

BARREN



Julia Osa Alberdi

2019ko abenduaren 18an hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Ondo egindakoaren damurik sekula ez izateko erakutsi zenigun eta hori izan da zure bizitzaren enborra. Bihotz onek, nonbait erreinurik badute, zu izango zara erregina.

Etxekoak





I. URTEURRENA

Lucia Zabaleta Azurmendi

2018ko abenduaren 5ean hil zen, 95 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, barikuan, abenduaren 20an,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Cruz Arriola Albizu

2018ko abenduaren 16an hil zen, 90 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, barikuan, abenduaren 20an,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Isabel Amestoy Fernandez

2018ko abenduaren 27an hil zen.

**Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen goxoa ezerk ez du lausotuko.**



II. URTEURRENA

Emilia Herrero Fernandez

2017ko abenduaren 17an hil zen, 70 urte zituela.

**Gure ondotik joan zinen,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.**



VII. URTEURRENA

Kerman Moreno Iriondo

**Mendietarantz pausoa luzea
bizitzak krudel haizea
nola gainditu, nola arindu
zu hemen ez izatea.
Zure goxoa, zure barrea
gertu beti umorea
ez hiltzen zenbat saiatzen garen
bizitzen gutxi, ordea,
gugan landatu dituzunekin
segiko dugu bidea.**

Etxekoak

2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela.
Haren oroimenez VII. urteurreneko meza izango da, barikuan,
abenduaren 20an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Zazpi gaztagile lehiatuko dira urteko gazta onena aukeratzeko txapelketan



Urteko gaztarik onena aukeratzeko dute Gabon Zahar feria egunean, 2019ko gazta txapelketaren bat irabazi duten gaztagileen artean. Aurten zazpi gaztagile lehiatuko dira; tartean, Elgoibarko Mausitxa. Hauek dira lehiakideak: La Leze (Ilardua): Deba, Araia eta Agurainen eginiko gazta-txapelketak irabazi ditu. Mausitxa (Elgoibar): Bilbo, Elgoibar eta Legazpiko txapelketetako irabazlea. Azkarra (Galarreta): Azpeitiko eta Plentziako txapel-duna. Kortaria (Lekaroz): Uharte-Arakil, Ordizia eta Euskal Herriko Gazta Txapelketetako irabazlea. Ander Barandiaran (Idiazabal): Berako txapelketetako irabazlea. Larrabe-Agiñiga (Amurrio): Amurrioko eta Gernikako txapelketetako irabazlea. Santamañe (Markina-Xemein): Bermeon eta Eibarren txapel-dun izan dena.

Gaztagileek Elgoibarko udaletxean aurkeztu beharko dituzte gaztak abenduaren 28an, 11:30ak baino lehenago. 12:00etan hasiko da lehiaketa udaletxeko pleno aretoan eta epaimahaikideen lana bertatik bertara jarraitzeko aukera izango dute hala nahi dutenek. Irabazleak 1.500 euroko saria, txapela eta garaiurra jasoko ditu. Elgoibarko Udalak eta Kalamua elkarteak antolatzen dute txapelketa hau.

131 saltoki, Gabon Zahar ferian

Era guztietako 131 saltoki jarriko dituzte aurten. Urteko gazta onenaren sariak gaiz, fruta eta barazki lehiaketak ere egingo dituzte. Sariak emateko orduan, honakoak hartuko dituzte kontuan: salgaien kalitatea, mota ezberdinetako salgaiak erakutsi eta saltzea, mota bakoitzeko aldaera edo barrietate desberdinak erakutsi eta saltzea. Halaber, 400 euroko saria emango zaio mendiak hobekien zaintzen dituen baserritarari.

Era berean, Lekueder eta Kalebarren plazara hurbiltzen direnak, hainbat abereren erakusketaz, produktuen salmentaz eta labeldun saiheski pintxoek gozatu ahal izango dute. Pedro Migel Urruzunon, burdineria eta nekazaritza-makineria erakusketa egingo da. Era berean, aipatzekoa da ArTaldeak Maalako parkean, 10:00etatik 14:30etara, egingo duen artisauen erakustaldia eta produktuen salmenta. Halaber, 11:00etatik 14:30etara falkoneria erakustaldia egingo da Kalebarren plazan. (Egitarau guztia agendan duzue ikusgai).

Astelehenean zabalduko dute anbulatorio aurreko igogailua

Udalak jakinarazi du, ondo bidean, astelehenean zabalduko dutela anbulatorio aurreko igogailua. Esan dutenez, igogailua konpontzen ari den enpresak arazo dextente aurkitu ditu eraberritze lanei ekitean, eta horregatik, uste baino gehiago luzatu da obra. Kabina ia prest dago eta egun hauetan zenbait polea eta konexio konponduko dituzte. Elgoibarko Udalak barkamena eskatzen die herritarrei igogailuaren zabaltze-epaia uste baino gehiago luzatu delako eta honek eragin dituen eragozpenengatik.



Maltzagarako bidegorria itxi egingo dute bi egunez

Elgoibar eta Maltzaga arteko bidegorriaren mantentze lanak hasiko dituzte astelehenean, eta ondorioz, bidea itxita egongo da abenduaren 23an eta 24an, 8:00etatik 19:00etara. Bide batez, zuhaitzak kimatuko dituzte, eta jausitakoak kendu. Hango bizilagunek bakarrik izango dute sartzeko aukera.

36ko Gerrako lubakiak garbitzeko deia

36ko Gerran miliziano antifaxistek erabilitako lubakiak garbitzeko deia egin du Elgoibar36 taldeak. Auzolanean egingo dute garbiketara, eta lan hori egiteko herritarren beharra dutela adierazi dute. Urtarrilaren 4an egingo dute. Izena emateko ondorengo helbide elektronikora idatzi behar da: elgoibar1936@gmail.com

Haizeak eta euriak hainbat kalte eragin zituzten joan zen barikuan Elgoibarren eta Mendaron



Euriteen ondorioz, urak hartu zuen Garagartza auzoa bariku goizaldean, Abarketeroneko parean eta Trinitate kalean. Garagartza eta Trinitate kaleetako bizilagunak kalean apar-katuta zituzten autoak lekualdatzera eta garajeak husteru jaiki behar izan ziren goizaldeko ordubiak aldera. Larrialdi zerbitzuetara deitu zuten, eta hogeit bat minutuan iritsi ziren ertzainak eta suhiltzaileak. Haien lanari esker, kalteak ez ziren horren larriak izan. Elgoibarren, Kultur Etxeko Sotoan ere sartu zen ura eta han zuten materialaren parte bat galdu zuten Sinuösekoek, eta Altzo-lan ere eragin zituen kalteak.

Bariku goizerako atertu zuen, baina atertzeaz batera, haizeak ere indar handiagoa hartu zuen, eta kalteak eragin zituen. Lanbi parean haizeak zuhaitz bat bota zuen trenbidera eta ondorioz, hiru bat orduz etenda egon zen Mendara eta Elgoibar arteko tren zerbitzua, eta Bilborantz zihoazen bidaiariak oinez itzuli behar izan ziren Mendarora trenbidetik. Elgoibarko herrigunean ere bota zuen haizeak zuhaitz gazte bat, San Inazio kalean, eta, Mercadonako gasolindegiairen teilatua bere lekutik atera zuen



haizeak. Elgoibar Ikastolako eraikinean ere eragin zituen kalteak haizeteak. Aparkalekura ematen duen beirate bloke bat mugitu zuen, eta segurtasuna bermatzeko, asteburuan Ikastolan jokatze-koak ziren Eskola Kiroleko partidak bertan behera laga zituzten. Barikuan egitekoak zituzten entrenamenduak ere bertan behera laga zituzten.

Etxebarria eta Bixuete artean zubi berria eraikitzeko tramiteei ekin die Mendaroko Udalak

Etxebarria eta Bixuete artean zubi berria eraiki nahi du Mendaroko Udalak, eta tramiteak hasi dituztela jakinarazi dute. Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako Foru Diputatuarekin bildu ziren Iñaki Arregi alkatea eta Angel Iriondo zinegotzia, eta erakunde bakoitzak jarraitu beharreko pausuak definitu zituzten. Udalak 2020an garatu eta onartu nahi du proiektua, lanekin urte berean hasteko. Proiektua "garapen-fasean" dagoela zabaldu dute eta gai honetan eskumena duten erakunde ezberdinekin (tartean, Jauriaritza, Ura Agentzia, eta Gipuzkoako Foru Aldundia) biltzekoak direla aurreratu dute. EAJK hauteskunde-programan jaso zuen zubi berria egiteko asmoa eta orduan esandakoa berretsi du orain alkateak: "Gaur egun zubi bakarra dago industrialdea, ospitala eta Mendaroko hainbat auzotarako. Gainera, oso estua da, eta hainbat arazo ematen ditu, batez ere kamioiak, trailerrak, autobusak... gurutzatzen direnean. Zubi horretan zerbaite gertatu eta moztu beharko balitz, mendarorarrak inkomunikatuta geldituko ginateke".

Adikzioen prebentziorako plana berrituko du Udalak, herritarrekin elkarlanean

Elgoibarko Udalak adikzioen prebentziorako plana berrituko du, herritarrekin elkarlanean. Besteak beste, herriko errealitatearen diagnosia egingo dute, eta helburu nagusia drogen kontsumoa eta bestelako adikzioak sahiestea izango da: hala nola, ludopatia edota Internetekiko adikzioa. Herritarrak menpekotasun arazoaren aurrean sentsibilizatu eta hezi nahi dituzte, eta era berean, aisialdi osasuntsua sustatzen saiatuko dira. Udaleko arduradunek uste dute lan honetan komunitate osoaren inplikazioa ezinbestekoa dela. Horregatik, lanketa hau herriko talde eragile, agente sozial eta gaiarekiko interesa duten guztiekin egingo dute, modu parte-hartzailean. Udalaren web orrialdean banner bat ipiniko dute, gaiaren inguruko inkesta batekin, herritar orok bere iritzia emateko aukera izan dezan. Erabiltzaileek urtarilaren 30era arte bete ahalko dute inkesta hori, esteka honetan: <https://labur.eus/132Vi>. Behin iturri bietako informazioak jasota, urtarilaren bukaeran, foro desberdinak antolatuko dituzte, jasotako emaitzen inguruan hausnartzeko. T Foro hauetara herriko eragile, elkarte, udal langile eta politikariak gonbidatuko dituzte, beste beste. Adikzioen Plan berria osatzea, Udalak, Gizarte Zerbitzuetako sailari dagokionez 2019-2023 legealdian zehar martxan jarriko duen ekintzarik garrantzitsuenetarikoa da, eta ondo bidetean, udaberri alderako prest egotea aurreikusi dute sustatzaileek.

Zilarrezko Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratu du Danobatgroupek



Danobatgroupeko ordezkariak abenduaren 11n jaso zuten Bikain ziurtagiria, Donostiako Kursoal Jauregian, Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua buru zela egindako sari banaketan. Makina erremintaren sektorean erreferente den moduan, euskara lantokietan sustatzeko lanean aitzindaria eta ikurra da Danobat, eta taldea osatzen duten beste kooperatiba batzuk ere badira Bikain ziurtagiriaren jabe. Ideko Teknologia zentroak, Soralue, Latz eta Goimekek zilarrezko ziurtagiria eskuratu dute azken urteetan eta Danobat kooperatibak urrea eskuratu zuen 2017an. Bikain Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiri ofiziala, publikoa eta doakoa da. Esparru sozioekonomikoan euskararen presentziaren, erabileraren eta kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzen du.

Paola Morales irabazle, jaiotza lehiaketan

Jaiotza lehiaketa egin zuten domekan Parrokiako Katekesiak antolatuta. Aurten 18 familiek hartu dute parte, eta horien artean, Paola Moralesen lanari eman diote epaimahaiko ki-deek lehenengo saria. Poliespanarekin eta goma evarekin eginiko jaiotza aurkeztu zuen Moralesek. Bigarren saridunak Helene Zubizarreta eta Ainhoa



Amedo izan ziren; hirugarrenak Eneko Arnaiz eta Maria Gutierrez; laugarrenak Sara Mekolalde eta Maialen De la Maza; eta bosgarrenak, Manex Sanchez eta Duna Sanchez.

Lan guztiak urtarilaren 7ra arte egongo dira ikusgai San Frantzisko kaleko 24. zenbakian.

Azken sarrerak, bertso-jaialdirako

Elgoibarko Izarratik adierazi dutenez, sarrera gutxi batzuk baino ez dira geratzen abenduaren 26an Herriko Antzokian izango den bertso-jaialdirako. Astelehena, abenduak 23, izango da sarrerak aurrez erosteko azken eguna. Gero, sarrerarik gertatzen bada, egunean bertan salduko dira Herriko Antzokiko takilan.



I. URTEURRENA

Manuel Landa Kortaberria

2018ko abenduaren 30ean hil zen, 91 urte zituela.

Haren oroimenez meza izango da, eguaztenean, abenduaren 25ean, 12:30ean, Azpilgoetako elizan.

Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Joan zinen
gu hemen utzita,
baina jakin ezazu,
inoiz ez zaitugula ahaztuko.***



*Jose Mari eta Marilu
anai-arrebak odolez
azkoitiarrak jaiotzez
elgoibartar eta ondarrutar bihotzez
elkarrekin betirako irribarrez
Eskapaixotarrok gogoratzen zaituztegu maitasunez.*



I. URTEURRENA

Jose Mari Aizpurua Epelde

2018ko abenduaren 18an hil zen, 80 urte zituela

Haien oroimenez I. urteurren meza izango da, zapatuan, abenduaren 21ean, 19:00etan Elgoibarko bartolome deunaren eliz-parrokian.

I. URTEURRENA

Maria Luisa Aizpurua Epelde

2018ko apirilaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.



I. URTEURRENA

Sebastian Andonegi Gabilondo

2019ko urtarrilaren 4an hil zen, 90 urte zituela.

Haren oroimenez meza izango da, urtarrilaren 4an, 19:00etan, Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.***

Etxekoak





▶ ANTONIO IPARRAGIRRE ETA PAKITA URBIETA

SAGARMIÑA BASERRIKOAK

“1.300 bat gramoko madari-aleak ere eramango ditugu Elgoibarrera, Gabon Zahar feriara”

- Antonio Iparragirre -

Ezagunak dira Elgoibarren Sagarmiña baserrikoak, bai eta kilotik gorako haien fruta-aleak ere. Urte askoan hutsik egin gabe etorri dira Gabon Zahar feriara, eta sariarekin itzuli dira beti etxera. Aurten ere hemen izango dira, etxeko jenero onenarekin.

- AINARA ARGOITIA -

♦ 30 bat urtean fruta posturik onenaren saria jaso duzue Elgoibarko Gabon Zahar ferian. Ez da edozelako marka.

Pakita: Ez da, ez. 1985. urtean izango

zen estreinako aldia. Elgoibarrera joaten hasi aurretik bi-hiru urtean Eibarko sanandresetako azokara ere joan izan ginen, eta sariren batekin bueltatu ginen beti. Probatze aldera joan ginen estrei-

nako aldian Eibarrera, erdi tuntun. Frutak ere fruta-kaxetatik atera gabe eduki genituen mahaian, pentsa! Geroago hasi ginen mahaia dotoretzen-eta. Geuk ere ikasi egin dugu urteekin.

*“Pipitta txikiak
hasteaz bat hasi
behar da bakantzen,
onenak apartatzen,
fruta-alea
haziko bada”*

- Pakita Urbieta -

14 urte nituela hasi nintzen igelseritzan lanean, eta bitarte guztietan, hemen ibili naiz beti, fruta-jiran. Mintegietara joaten gara ez daukagunaren bila eta zer dagoen ona ikustera, eta handik ekartzen ditugu landareak. Eta etxean ere txertatzen ditugu. Landare baten adarrean fruta ona ematen duen beste arbola baten adartxoaren itsasteari esaten zaio txertatzea. Urtero egiten dut nik hori. Orain ere badauzkat hamabost bat txertatzeko. Jenero ona daukagu. Aurten ere kiloko sagar eta madariak edozein eramango ditugu Elgoibarrera eta 1.200-1.300 gramoko madariak ere bai tartean.

♦ **Famili oso batek jan dezake halako batekin. Nola lortzen dituzue hala-koak?**

Antonio: Batetik, landarea da ona, eta bestetik, urte guztiko zaintza dago honen atzean. Bakantzea da horretarako garrantzitsua. Maiatzean, pipitta txikiak hasteaz bat hasi behar da bakantzen, onenak apartatzen, fruta-alea haziko bada. Astean bi-hiru bider egiten dugu lan hori. Hazi ahala ere, ikusten da zeintzuk datozen hobeak eta zeintzuk eskasagoak. Txorta bakoitzean bi-hiru ale nahikoa dira, bestela ez dira hazten. Begira, aurten sagar urtea izan da, baina normalean, sagar urteetan, aleak txikiagoak izaten dira. Ugari dagoenean, aleak beti dira txikiagoak.

Pakita: Nik esan ere egiten diot sarri honi: ‘Kontuz gero, azkenerako sagar gabe utzi behar duzu arbola-eta!’. Sagar doa egiteko erabiltzen dituzten tamainako sagarrak ere kentzen dituhonek. Arbola-ondoa estalita lagatzen

du tamaina horretako sagarrekin. Pena ere ematen dit neri, baina...

♦ **Sagar asko galduko da ba alferrik, ala?**

Antonio: Bai, bertan lagatzen ditugu usteltzen. Ongarria da hori arbolarentzat. Inguruan ebagitzen dugun belarra ere botatzen diogu arbolari ondora. Bestela, ongarririk apenas erabiltzen dugun. Lau urtean behin-edo apurren bat, baina aspaldian hori ere ez.

♦ **Gaur egunean zenbat fruta klase hartzen dituzue?**

Pakita: 45 bat barietate. Orain hiru-lau bat urte arbola batzuk kendu egin genituen mahatsondoak sartzeko, baina orain ere, Elgoibarrera 43 bat barietate eramango ditugu. Sagardo-sagar arbolak eta jan-sagar arbola batzuk kendu ditugu, baina barietateari eusten diogu. Sagarretan, esaterako, hamabost bat klase izango ditugu, eta madarietan beste hamar bat-edo. Sagarrak, madariak, kiwiak, kakiak, feijoak, naranjak, limoiak, mahatsa... aukera zabala daukagu. Granada arbolak ere izan genituen eta ale ederrak eman zizkiguten, baina kendu genituen gero. Eta intxaurren doak eta hurrondoak ere izan ditugu, baina hemen halakoei sarri gorrinak jotzen die, eta kendu genituen, fruta gehiago ematen dutenak sartzeko. Egia esan, zortea izan dugu guk, sekula ez garela gelditu fruitarik hartu gabe. Urte onak eta eskasagoak izan dira, baina urte txarra esaten denik ez.

Antonio: Naranjak eta limoiak ere urte guztian hartzen ditugu.

♦ **Paraje beroagoak zirela uste nuen.**

Antonio: Hemen ere hartu daitezke, baina, eta kanpokoak baino ederragoak eta hobeak. Arbola horiek ondo kimatu behar dira, hori bai. Txarto inausiz gero, landareak galdu egiten du.

♦ **Zuen eskaintza horretatik zein frutak du estimazio handiena?**

Antonio: Saltzeko onena, General Lercer modaria da. Mutrikun behintzat horretxek dauka estimazio handiena. Oso leku gutxitan hartzen da hemen inguruan eta gurean ale onak ematen ditu, inguru

♦ **Horrenbeste urtean irabazita, pentsatzekoa da urtetik urtera gehiago eskatuko diozuela zeuen buruei. Ohitu ere egingo zineten, akaso, irabaztera.**

Antonio: Ohitu ez da behin ere egiten. Hemen lanik gabe ez dago ezer. Guk lehenago Golden sagarra hartzen genuen asko. 400-500 bat arbola izan genituen asko ematen zutenak eta orduan hasi ginen azoketara joaten. Kiwi arbolak jarri genituen geroxeago. Orduan, orain 35 bat urte, ez zen kiwirik ikusten hemen bueltan eta dirua ematen zuen. 500 bat pezeta, bai, kilok! Aleko saltzen genituen kiwiak.

♦ **Zein da zuen sekretua?**

Antonio: Lana da hemen sekretua. Hauxe gustatzen zaigu guri, arbolak zaintzea. Nik neuk pasiaran ibiltzea baino mila bider nahiago dut fruta-arbolak zaintzea.

haizebea delako-edo. Inguruko askok eraman dituzte landarak hemendik eta baita mentuak ere, ez titzeko, baina ezin izan dute hartu.

◆ **Fruta-arbola asko daude hemen. Nola banatzen dituzue lanak?**

Pakita: Ni pepittak kentzen eta frutak batzen ibiltzen naiz gehiago, eta senarra eta semeak ibiltzen dira arbolak kimatzen eta txertatzen. Denontzako lana dago hemen. Hemendik martxora arte sagarrondoak, madariondoak eta mahats-arbolak kimatu eta kimatu ibiliko dira hauek. Ez gara aspertzen.

◆ **Elgoibarko Gabon Zahar feriak zer du berezia?**

Pakita: Jende asko ibiltzen da Elgoibarren, eta berezia da. Ez dakit zerk egiten duen horren berezi, baina egia da geuk ere mimos zaintzen dugula gabon zahar feriarako jeneroa. Sasoi batean ibili izan ginen Mendarora, Arrasatera, Azpeitira eta beste herri batzuetara joaten ere, eta deitu ere egin izan digute Donostiatik eta santamasetako azokara joateko, baina ez gara joaten, lan handia delako azokarako prestatzea. Orain, Elgoibarko Gabon zahar feriara, Eibarko sanandresetakora eta Debakora joaten gara, eta fruta dagoen bitartean, bost bat hilabetean, ostiraleroko, Mutrikura jaisten naiz, azokara. Asteroko bezero onak ditugu. Gurean sagarra eta txermenak dagoen bitartean, zain izaten dut jendea Mutrikin. 8:00ak alderako joaten naiz azokara eta 9:30-10:00etarako bueltan izaten naiz, dena salduta. Bezero finak dauzkagu.

◆ **Jendea erruz ibiltzen da, bai, baina erosleak ere bai?**

Antonio: Bueno, bai, erosleak izaten dira, baina ikusmiran gehiago ibiltzen dira, denean bezala. Hori bai, baserriko jende asko ibiltzen da Elgoibarren, gauza hauek dakien jendea. 'Gurian ere badagoz madarixak, baiña ez dituk halakuak hazten. Hónek zelan hazten dituk ba!', esanez etortzen zaizkigu asko, harrituta. Hemen hartutakoak dira ere ez dute sinesten askok. Eta halakoei irailan, fruta arbolan



dagoenean, etortzeko esaten diet, euren begiz ikus dezaten. Aurten, gainera, sekula baino ederrago izan ditugu arbolak. Ikusgarri.

◆ **Eta hemen dituzuen arbolek eman dezaketen jenero guztiari ematen diuzue aterabidea astein behin bakarrik jaitsita azokara?**

Pakita: Bai, bai. Ez daukagu horrenbeste sailik ere.

◆ **Mahatsa sartu zenuten, txakolina egiteko. Zer ezaugarri ditu zuen txakolinak?**

Pakita: Getariako txakoliña jatorri izendapena du gure txakolinak. Baina hori semeak eta errainak eramaten dute. Guk nahikoa lan dugu gure fruta arbolekin. Handizkako merkatariei saltzen diegu txakolina gehienbat, eta etxera etortzen diren batzuei ere bai, baina azokara ez dugu eramaten, ez bada, mahaia dotoretzeko-edo.

◆ **Noiz hasi zineten txakolina ekoizten?**

Antonio: Honezkero 35 bat urte izango dira lehenengo mahatsondoak sartu nituenetik. Mendian pinua jo, sasiak erre, ingurua garbitu eta aitzurrarekin bidea eginda sartu nituen. Gustatu egiten zait niri txakolina eta etxerako egiteko hasi nintzen, baina gero gustatu eta... Txakolinak, gainera, diru gehiago ematen du sagarrek baino.

◆ **73 urte dituzu. Zure adinerako jendea lana egiteari laga nahian ibiltzen da.**

Antonio: Niri hauxe gustatzen zait, baina. Zerbait lortzeko, gainera, denetik egin behar da hemen, batetik pixkat eta bestetik beste pixkat.

◆ **Gabon zahar feria eguna noiz hasten da zuentzat?**

Pakita: Seiretarako joaten gara goizean eta pare bat ordu behar izaten ditugu mahaia atontzeko. 8:30ak ere jotzen digute amaitzerako!. 16 metro luze izaten ditu gure mahaiak, eta bost bat lagun ibiltzen gara frutak banan-banan jartzen eta mahaia dotoretzen. Lan handia izaten du horrek. Baina lana ez da seiretan hasten. Aurreko egunetan ere nahikoa lan erabiltzen dugu, fruta klase bakoitzeko ale onak apartatzen.

◆ **Uste duzue azoketara joaten den jendeak estimatzen duela baserriarlan?**

Antonio: Batzuek bai, baina askok ez. Hemen zer lan dagoen ez dakienak ezin du baloratu.

Pakita: 'Ene, egiten duzue lana ba!' esanez ere etortzen zaizkigu eta hori ere esan behar da.


◆ **Formazio berezirik jaso duzue?**

Pakita: Baita zera ere!

Antonio: Probatu egiten dugu guk, batera eta bestera, eta ondo ematen duenari heldu. Ematen ez duen arbola, berriz, kendu. Pena ematen du arbola ederra kentzeak, baina fruturik eman ezeean... kendu eta listo.

MAQUINAS ESPECIALES

IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
Tel.: 943 744 466 · Faxe: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net

MAKINA BEREZIAK

ARAMBURU BITXI DENDA

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35

Erosi zure erregalua Aramburu bitxidendan eta
250€-ko bi baleen zozketan sartuko zara.



Gizonezkoen ile-apaindegia
JOSE ANTONIO

Ondo pasa Gabonetan!

Zerbitzu bakiltzean, toalla eta erabil eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higiearen gaineko araudiak eskatzen duena betetz.

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar trukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Kontsultatu hemen informazioa:

www.peluqueriajoseantonio.com



Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492



T. 943 74 25 67
M. 626 591 658
jasones@jasonesg.com

INPRIMATEGIA



*Jai zoriontsuak
eta urte berri on!*



www.jasonesg.com
ELGOIBAR

zubacor

Ondo pasa gabonetan!

www.zubacor.com - zubacor@zubacor.com

Tel.: 943 740 844 - Faxe: 943 742 666



Amaia Arrieta Vallejo eta Itziar Etxeberria Egaña.

“Agintariei ahoa betetzen zaie zaintzarekin, baina gero nola baloratzen dute?”

- Itziar Etxeberria -

▶ AMAIA ARRIETA ETA ITZIAR ETXEBERRIA

Gipuzkoako zahar etxeetako langileek hilabeteko beste greba bat hasiko zutela iragarri bezperan, abenduaren 10ean, batu zen BARREN afera honetan kaltetu nagusiak direnekin, egoiliarren senideekin. Senarra dauka egoitzan Itziar Etxeberriak eta izeko, Amaia Arrietak. Euren testigantza emateko eskatu genienean, artean, eta ofizialki, ez zekiten 148. greba egun hari beste 31 gehituko zitzaizkiola, baina usaina hartua zioten. Izan ere, bazekiten Aldundiak uko eginga ziola egun horretarako ELAk Foru Aldundiari berari, Gipuzkoan zaharren egoitzak kudeatzen dituzten enpresei eta gainerako sindikatuvei batzeko egindako gonbidapenari, eta beraz, zaila zegoela konponbidea. Hala ere, itxaropen puntu bat bazuten. “Hori ezin da galdu”. Gutxi-asko igarri dute grebaren eragina egoitzan, baina ulertzen dute eta ez daude langileen kontra egiteko, “ezin iritsita” ikusten dituztelako. Negoziazera deitu dituzte aldeak.

- AINARA ARGOITIA -

◆ Zein da zuen egoera?

Itziar: Otsailean 80 urte beteko ditu senarrak [Felix Garcia-Abad], eta hogeitun urtean daukat Alzheimerren gaitzarekin. Etxean zaindu dugu ahal izan dugun ar-

tean, baina duela sei urtetik San Lazaro egoitzan daukagu, dena egiten diotela. Ez zen erabaki erraza izan hara eramatea. Nik ez nuen nahi, baina ez nintzen bizi, eta semeek ohartarazi zidaten era-

man ezean neu gaixotu behar nintzela. Minbiziaren esaten dugu, baina Alzheimerren azkena da. Minbiziarekin jende asko hil da, bai, baina sendatu ere bai. Sendatu behar dena, sendatu egiten da.

Hemen, ez. Hemen okerrera egiten da beti, eta bizi dira, bai, baina ezertarako ez direla.

Amaia: Guk izeko daukagu San Lazaro egoitzan, urteetan gurekin bizi izan den izeko alarguna [Miren Vallejo]. Duela urtebete eraman genuen egoitzara [aurrez Soraluzeko egoitzan egin zuen hila-bete]. Illobok zaintzen genuen, baina iritsi zen momentu bat ezin genuela behar bezala zaindu. Gure izeko ez dago Felixen egoeran, burua ondo daukalako, tarteka aldrebesten zaion arren, baina 96 urte ditu. Urte asko. Karakter handiko emakumea da, oso aktiboa izan da beti eta oraintsu arte nahikoa independente, eta jakina, oso zaila egin zitzaion egoitzara joan behar zuela onartzea. Oraindik ere borroka hori dugu. Hori bai, nesken inguruan [bat ez beste langile guztiak emakumeak dira egoitzan] kexarik ez dauka. Orain, gurpildun aulkian dago, eroriko batzuk ere izan dituelako. Urtebetean mokorra, humeroa eta besoa apurtu ditu, eta laguntza behar du. Autonomian, hala ere, alde handia dute Felixek eta gure izeko Mirenek.

♦ **Gaur [abenduak 10] 148 egun bete dituzte zahar etxeetako langileek greban, eta luzatzeko aukera aztertzen ari dira [biharamunean jakinarazi zuten luzatu egingo zutela]. Zer iritzi duzue?**

Amaia: Nik ulertzen diet. Egoitzan mendekotasun handia duten lagunak daude eta haiek behar duten arretarako oso langile gutxi daudela iruditzen zait. Ezin iritsita dabilta eta ezin dituzte egoiliarak nahiko lituzketen moduan zaindu, ahalegina egiten duten arren. Dauden egoeran egoteko, goxo hartzen dituzte gure senideak eta eskertzekoa da hori.

♦ **Egoiliar bakoitzari batez beste egunean 92 minutu eskaini diezaioketela ohartarazi dute ELA sindikatutik, eta gutxienez, bi ordu beharko lituzketela. Zer diozue horren inguruan? Igarri al duzue grebaren eragina?**

Itziar: Zer esango dizugu ba? Dena dela gutxi. Nire gizonari dena egin behar zaionez, eginbeharrekoak derri-

“Mendekotasun handia duten lagunak daude eta haiek behar duten arretarako jende gutxi dagoela iruditzen zait”

- Amaia Arrieta -

gor egin behar dizkiote, eta alde horretatik nik neuk ez dut asko igarri greba, baina bai ikusten dut presaka eta estu dabilzala, eta beharbada, premia-premiazkoak ez diren lan batzuk atzeratzen ari direla.

Amaia: Familiak ere ezberdinak gara, eta senide batzuk kexatzen dira, baina nik ondo zainduta ikusten dut izeko. Egia da, adibidez, siesta orduan medikuaren agindua dutenak bakarrik eramaten dituztela orain ohera, eta gainerakoak sofan lagatzen dituztela, erdi etzanda eta mantarekin goxo tapatuta. Eta, jakina, senide guztiak ez daude gustura. Beste batzuk kexatzen dira egoiliarrei ez dizkietelako atzazkalak lehen bezain sarri mozten edo astean bi-hirutan dutxatu beharrean behin bakarrik dutxatzen dituztelako orain, baina ulertu behar dugu egoera honetan ezin dutela gehiago egin. Gauza bat esango dizut gainera: nik sekula ez dut izeko zikin topatu. Zuk, Itziar? -Ezetz dio Itziarrek buruarekin aldamentetik-. Hori dena ulergarria egiten zait niri egoera honetan, eta iruditzen zait senideok ere egin behar dugula gure etxeok zaintzen ari direnen alde. Gure izeko ere jabetzen da langileen ezinaz, baina ez du grebarekin lotzen. ‘Gaur pertsona bakar bat egon da hemen gu denontzat’, esan izan digu noizbait, eta aurrekoan esan zidan ordubete egin zuela komunean zain. Ziur nago ez zela horrenbeste denbora izan, baina luze egin zitzaion. Nik badakit beste egoitza batzuetan gabezia handiagoak izaten ari direla, eta

hemen hobeto baldin bagaude, hein batean langileei esker dela, dena ematen dutelako, baita eman beharko luketena baino gehiago ere.

♦ **Estresa eta karga emozionala salatu dituzte grebara batu diren langileek. ‘Ez da makina batzuk gelditzea. Guk pertsonekin egiten dugu lana, ahalmenak murriztuak dituzten pertsonekin, ezinbestean behar gaituztenekin’. Ulertzen dituzue?**

Itziar: Dudarik gabe. Hiru egunean ohean dago gure senarra, sukarrarekin, eta orain neu joaten naiz gauetan afaria ematera. Langileei esan nien nahi bazuten ni prest nengoela hori egiteko, eta eskertu zidaten. Senarrari jaten ematera joaten naiz, jakina, ez besteei. Nik uste dut, egoera honetan, ahal dugun senideok ere lagundu behar dugula, langileak eskatzen ari direna justua delako. Agintariei ahoa betetzen zaie zaintzaren kontuarekin, baina gero nola baloratzen dute zaintza? Zer egiten dute? 24 orduz ardura horrekin bizi izan garenok bada-kigu zer den hori. Adineko pertsonak zaintzea ez da inoren gogoko lana. Ezinak, gainera, gure txarrena ateratzen du sarri, eta mendeko egoeran dagoenaren ezina, haserre, eraman egin behar da! Gauzez lo egitea zer zen ere ahaztuen nik senarra etxean bizi zenean. Goizaldera diharka esnatzen ninduen, ea ohean zertan geunden galdezka. Eta lasterketa joaten nintzen bere logelara, gauza bat zelako nik lorik ez egitea, baina beste bat etxepe guztia esnatzea. ‘¿Qué hacemos en la cama a estas horas?’, esaten zidan haserre, eta jantzi eta balkoira atera behar izaten nuen halakoetan, herria lo zegoela erakusteko. Eta lasaitzen zen itxuraz, baina oheratu eta neu ohean sartzerako berriz hasten zen deika, amorrarazita. Eta horrela, gauero. Egun batean bai, eta bestean ere bai. Oso gogorra da hori, eta ez dago hori ordainduko duen dirurik. Eta nik gauza bat izan dut ona: bi seme daukat eta biak etxepe berean bizi dira, eta banekien behar nituenean gertu izango nituela laguntzeko. Niri lasaita-

sun handia ematen zidan horrek. Behin baino gehiagotan jausi izan zen gizona etxean, estropozu eginda, eta atzetik heldu eta tentetzen nuen! Nerbioak egiten du hori, tenk eta gora! Gaixoarentzat bizi gara zaintzaileok, gaixoari emanda, geure bizitza abandonatuta, eta senarra egoitzan sartzea izugarrizko arindua izan da niretzat.

Baina, maite duzun pertsona etxetik ateratzea oso-oso gogorra da! Horregatik, nik neuk izugarri baloratzen dut langile hauek egiten duten lana. Honek ez dauka preziorik. San Lazaron, harreran egotea tokatzen zaion langilea ere sekula ez da harreran egoten, beti izaten duelako jangelan edo beste nonbait lagundu beharra. Gauza batekin konturatu naiz ni: sartzen diren langile berriek ez dakartela horrenbeste poz, eta normala da.

Amaia: Langile hauena baino gutxiago aitortutako lanik nekez egongo da. Ahal duten ondoen eta maitasun handienarekin zaintzen dituzte gure senideak, eta orain, oso egoera zailean daude. Karga emozional handiarekin ari dira lanean. Pertsonekin ari dira lanean, eta askok gainera ezinbestean behar dituzte ondoan. Nik badakit egoera horretan greba egitea bera ere zaila zaiela. Itziarrek dioena ere hala da. Asko hitz egiten da zaintzaz eta adinekoek behar dituzten laguntzez, baina esandako ezer ez da betetzen.

♦ **Duten autonomiari eusteko, adinekoei eguneroko gauzak egiteko behar duten denbora ematea ezinbestekoa dela ohartarazi izan dute adituek. Zaila dirudi betetzea. Kezkatzen zaituzte horrek?**

Amaia: Ez naiz horretaz ohartu, baina, jakina, hori ere hala da.

Itziar: Egi handia da hori, baina zaila dago. Erlojuaren kontra lanean dabilenak ezin du denborarik galdu. Entzuten dituzu egoiliarrek esaten 'ene, gaur halakorekin tokatu zait dutzatzea, eta zein zakarra den! Korrika erabili nau batetik bestera!'. Baina, klaro, zenbat denbora dute ba bakoitzari eskaintzeko? Afaltzen

“Linbo batean daude langileak. Gure nagusiak zaintzen dituzte, baina egiten duten lana ez dago ordainduta”

- Itziar Etxeberria -

emateko ere orduerdi bat izaten dute, gero ohera sartu behar izaten dituztelako. Nire senarraren antzera daudenak 15 bat izango dira, baina beheragoko pisuetan dauden egoiliar batzuk ere altxatzen dituzte laugarren pisuko jangelara, laguntzarik gabe ez direlako jateko gauza. Bada beste kontu garrantzitsu bat ere. Adinekoak behar du atentzioa, behar du hitz egitea, behar du goxotasuna, eta hori ezin da minututan neurtu.

Amaia: 19:30ean hasten dira mende-kotasun handiena dutenei afaltzen ematen, eta 20:00etan gainerakoei eta 22:15erako oheratuta izaten dituzte denak. Gobernatu 45 adineko horren denbora gutxian!. Eta Itziarrek esan duen beste hori ere oso garrantzitsua da. Badago gizon bat egun osoan besotik helduta erabiltzen dutena. Gizon horrek horixe behar du, kontaktua. Baina eguneko 92 minuturekin ezin da hori eman. Orain, gutxieneko zerbitzuak ematen ari dira, baina lehen ere, denbora askorik gabe zebiltzan hemen langileak.

♦ **Gipuzkoan, zahar etxean erabiltzaileen senide talde bat elkartu da, haserrea agertu eta langileei babesa agertzeko. Ezagutzen duzue taldea? Zer iruditzen zaizue haien ekimena?**

Amaia: Bai, nik ezagutzen dut eta lagun baten bitartez ekarri izan ditut hona ere informazio eskuorriak, baina momentuz ez da hemen mugimendurik sortu. Gure egoitza txikia ere bada eta... 48 egoiliar daude bakarrik eta batzuek seniderik ere ez dute hemen. Nik ez dut argirik ikusten borroka hone-

tan, oso burugogor ikusten ditudalako denak. Eta ez naiz horrenbeste langileez ari. Maite Peña Gizarte Politiketako diputatuak Elgoibarren eman zuen hitzaldian esandakoen inguruan pentsatzen egoten naiz ni sarri. Populazioa zahartzen ari da, gaixotasunak kronifikatzen, bizi-itzaropena luzatzen eta zaintzaren gaia erdigunean jarri ezean, jai daukagu hemen. Hor dago hutsunea.

Itziar: Nik ikusten dudana da linbo batean daudela langile hauek. Gure etxeko nagusiak zaintzen dituzte, mimo handiz, baina egiten duten lana ez da soldatan jasotzen. Eta beste gauza bat esango dizut. Greban dauden denboran gu berdin-berdin ari gara ordaintzen egoitzako zerbitzua, eta langileak gutxiago ari dira kobratzen. Diru hori nora doa? (Pertsona bakoitzak bere ahalekin arabera ordaintzen du, baina zahar etxeko plazak 3.000 euro balio ditu hilean).

**Elkarrizketa hau egin biharamunean, Markel Olano Gipuzkoako ahal-dun nagusiak esan zuen aldundiak eskatua ziola Jaurlaritzari gutxieneko zerbitzuak % 80ra igotzeko, baldin eta zahar-etxeetako greba luzatzen baldin bazen. Grebarako eskubidea errespetatzen duela esan zuen Euskadi Irratiko Faktoria saioan egindako adierazpenetan, baina nabarmendu zuen egoitzetan bizi direnen duintasuna bermatzea zela aldundiaren lehentasuna. Era berean, iragarri zuen egin diren greba egunengatik familiei bueltatu egingo dietela ordaindu duten diruaren zati bat. Olanok negoziatuzera deitu zituen sindikatuak eta patronalak, eta esan zuen Gipuzkoako Aldundia mugitzeko prest dagoela, baina epe laburrera ez ezik erakundeari epe luze begiratzea ere badagokiola eta langileen eskari guztiak onartuz gero epe laburrerako arazoa konponduko litzatekeela baina luze kaltea ekarriko lukeela, sistema "itota" lagako lukeelako.*

2019 urteari errepasoa.....





● *Elgoibar 1936*. Zentral elektrikoetako fusilamenduak liburua argitaratu zuen Hodei Otegi. Barrena eta Olaso zentraletako familiek jasandako jarpenari buruzko pasarteak bildu zituen liburuan Otegi, eta Memoria Historikoaren alde beste urrats bat eman zuen.

● 1. Jesus Urizar Duo Plaentxi eta Basaur taldeetako kidea hil zen urtarrilaren 7an, 69 urte zituela. Duo Plaentxi taldeak egin zuen eza-gun, baina ez zuen hura izan talde bakarra. 2015ean Basaur taldea sortu zuen Jose Luis Badiola eta Santi Sarasketarekin batera.

● Hellen Obirik irabazi zuen Mugertza Krosa emakumezkoetan, eta Rhonex Kiprutok, gizonezkoetan. Erakustaldia emanez irabazi zuten gainera bi atxintxikari kenyarrek, nagusitasunez.



**WTR85V90ES
BOSCH LEHORGAILUA**

8Kg
A++

Ximurrenkontrakoa
Pausa + karga funtzioa
Beroa emateko bonbadun lehorgailua



585 €

**WUQ28467ES
BOSXH GARBIGAILUA**

8Kg
A+++

1400 R.P.M.

Ecosilence motorra,
SpeedPerfect funtzioa
%65rainoko denbora aurrezten du garbiketa emaitza ezinhobeekin.



499 €



● Eneko Labakak eta Xabi Telletxeak osatutako bikoteak irabazi zuten San Anton pilota txapelketa nagusien mailan, Sa-laberria eta Bikuñari 22-13 irabazita.

● Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Partzuegoak egoitza berria zabaldu zuten Mendaron. Bulego hori Mendaron kokatzeak zeresana ekarri zuten sare sozialetan, eta erabaki horrek herriari ekarriko zizkion onurei buruzko azalpenak eman zituen Estibaliz Hernaez, Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordeak.



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7- Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62


 ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
 ETA KONPONKETA
 ★ MULTIKOPISTAK
 ★ FOTOKOPIADORAK
 ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
 ★ MARRAZKETA
 MATERIALA
 ★ INFORMATIKA
 ★ FAX

MEKANOSA
 Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

Gabon zoriotsuak!

ESKAITZA BEREZIA!

LAGUNAK
 estalbehazlea testil lagun

%90ean antzaren lumatxekin betetako nordikoak 60€tik aurrera
%90ean antzaren lumatxekin betetako burkoa 46€tik aurrera

250g/m²

250g/m²

Etxeko hautsari alergia diatzenentzako egokia

Arropa garbigailuan garbitu daiteke; lehortu lehorgailuan.

Zerbikaletara perfektiora egokitzen da

Bolumena mantentzen du


Erraz garbitzen da

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



● Baserrietako Santa Eskeak 25 urte bete zituen. 1994an berreskuratu zuten Elgoibarko Izarrak gure herrian galduta zegoen ohitura hura, eta ordutik, otsailaren 4an egin izan dute santa eskea baserriz baserri. 25 urteotan behin bakarrik huts egin dute, elurteak baserrietako bideak itxi zituelako.

● Mendaroko Landa erretegia Europako ehun jatetxe onenen zerrendan sartu zuten. *Opinated about dining* webguneak osatu zuten zerrenda, eta sei euskal jatetxe sartu zituzten bertan. Landa jatetxea 51. postuan ageri zen. Horrez gain, Repsol Gidako eguzki bat jaso zuten erretegiak martxoan. Repsol Gidak nabarmendu zuten Landa erretegia erreferentea dela, parrilan egiteko lehengai apartak eta sasoian sasoiko produktak erabiltzen dituztelako.



● Iñaki Agirre, Ongarri Zine Klubeko arduraduna hil zen otsailaren 12an. Bera izan zen Ongarri Zine Klubaren sortzaileetako bat, eta Elgoibarren Aire Libreko Zinema martxan jartzea ahalbidetu zuenetako bat, Andres Odriozola eta Arrate eta Iñaki San Martin neba-arrebekin batera. Gaixotasun baten ondorioz hil zen, 62 urte zituela.



● Nerea Sasiainek irabazi zuten Euskadiko pista estaliko atletismo txapelketa, Anoetako Belodromoan. 400 metroko modalitatean lehiatu zen, eta urrea irabazteaz gain, denboraldiko markarik onena ezarri zuten 57 segundo eta 13 ehuneko denborarekin.

Etxetar

inzu
group




EGUBERRI ON

Zorionak eta
Urte Berri On!

San Antolin, 3 20870 Elgoibar (Spain)
T — (+34) 943 740 600
etxetar@etxetar.com — www.etxetar.com



● Mufomi Fossil eta Mineralen Museoak 25 urte bete zituen. 6.000 pieza inguru ditu, eta Euskal Herrian dauden paleontologiari buruzko museoen artean osatuenarikoa da. Historiaurreko garai desberdinetako tresnak eta gaur egun desagertuta dauden animalien hezurdurak biltzen ditu, besteak beste.



● Makina Erremintaren museoak 20 urte bete zituen. 1997an hasi zituzten obrak eta urtebete beranduago zabaldu zuten museoa, makina erremintarekin lotutako industria ondarea berreskuratzeko eta zaintzeko.



● *Air Pyrénées, la aerolínea de Euzkadi* liburua argitaratu zuen Iñaki Etxaniz historialariak. Air Pyrenees aire konpainiaren historia laburra jaso zuen Etxanizek liburuan. Renoko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroan (Nevada, AEB) egindako egonaldia batean suertatu zitzaion liburua idazteko aukera.



● Pertsona edo erakunde bati eginiko errekonozimenduaren Landaola saria eman zioten Pello Rubio Txillarri. Bere kasua ezohikoa da, eta hori hartu zuten kontuan arduradunek. 40 urterekin makina erremintaren sektorea utzi, eta nekazaritzarako saltoa eman zuen Pello Rubiok. Orduetik, 30 urtez aritu da nekazaritzari emana Elgoibarko Txillarre baserrian.

AHOLKULARITZA

BIKAIN 73.672.247

ASESORIA

Tel.: 943 744 557
Faxa: 943 740 408
e-posta: bikain@bikainasesoria.com

Gabon zorientsuak!!

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneik ostiratera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Leopindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ardua hartuko.

AGURTZANE c.b.

ilepantuegia

GABON ZORIENTSUAK! Santa Ana, 18
Elgoibar
943 741 884

GHD ILERAKO ERREMINTAN 30€ko deskontua dauzkagu, gabon hauetan erregalo ezinhobeak egiteko aukera izango duzue!



● Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetza hitzarmena sinatu zuten Pilarren ehun lagunentzako zahar etxea eraikitzeko. Markel Olano ahaldun nagusiak eta Ane Beitia Elgoibarko alkateak sinatu zuten hitzarmena. Olanok agindu zuen 2022rako eginda egongo dela zahar etxea.

● Mikel Arantzamendi izendatu zuten Elgoibarko udaltzainburu. Javier Oñederrak erretiroa hartu zuen, eta haren lekua bete du Arantzamendik. 1995ean udaltzain posturako oposizioak gainditu zituen, eta 24 urte egin ditu dagoeneko Elgoibarko Udaltzaingoan. Javier Oñederra udaltzainburuak erretiroa hartu zuen, 38 urtez Elgoibarko Udaltzaingoan jardun eta gero. 1984an kabo kargurako aukeratu zuten, eta 1995ean gainditu zituen udaltzainburu izateko oposaketak. 24 urtez bete zuen kargu hori.



● Emakumeek planto egin zuten martxoaren 8an. Emakumeek egiten dituzten lanak egiteari utzita mundua gelditu egin daitekeela erakusteko greba egin zuten. Kolore moreak hartu zituzten Elgoibarko eta Mendaroko kaleak.

Softlan S.L.

Albitxuri industriagunea, 3i
20870 Elgoibar - Gipuzkoa
943 748 105

www.softlan.biz - www.softlan.eus
info@softlan.biz

*Jai zoriontsuak
eta 2020 urte emankorra!*

Enprestarako Software-an espezializatuak



ERPa, Kudeaketa, Fabrikazioa, CRMa,
Fakturatzea, Kontabilitatea,
Lanpartek jasotzeko Programa,
Neurrira egindako Programak,
Segurtasun informatikoa.

www.softlan.biz - www.softlan.eus



● Andoni Segundok *Elgoibarko zuhaitzak* liburua argitaratu zuen. Elgoibarko herrigunean dauden zuhaitz espezie desberdinak aztertu ostean, 65 bat espezie desberdin batu zituen liburu batean. Hostoak identifikatzeko gako dikotomikoak, zuhaitzen kokapena eta espezieen ezaugarriak jaso zituen, besteak beste.



● Eusko Jaurlaritzak lege berri bat aterako zuela iragarri zuen, tabernek gehienez urtean hamabi kontzertu ematera mugatzeko. Arteak Ireki mugimendua sortu zen lege horren kontra, eta Jaurlaritzak atzera egitea erabaki zuen. Elgoibarren ere bat egin zuten kulturpileek Arteak Ireki egitasmoarekin.



● Elgoibarko musikarientzako entsegu-gelak ireki zituzten Pedro Mugurutzako ikastetxea izandako eraikinean. Behar bezala intsonorizatutako 20 metro koadroko bost entsegu gela prestatu zituzten.



● Uxue Alberdik *Kontrako ezarririk* liburua argitaratu zuen. Bertsolaritza genero ikuspegitik landu zuen Alberdik liburu horretan, hamabost emakume bertsolariren testigantzak erabiliz. Danele Sarrigurete gidatuta solasaldia egin zuten Pitxintxun.



Gabon hauetan oparitu edergintza!

Zatoz Olaia Martinez estetikara eta azken tratamenduen berri emango dizugu. Neurrira egindako opari-txartelak eta otarrak dauzkagu Gabonetarako.



Trenbide kalea, 21, behea, ezkerria - Elgoibar - **943 242 805**



● Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak 2019rako lankidetzeta hitzarmena sinatu zuten. Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentek eta Ane Beitia Udaleko alkateak sinatu zuten agiria. Hitzarmen horri esker, 204.000 euro eman zizkion Udalak euskara elkarteari 2019an zehar euskararen erabilera sustatzeko ekintzak eta haurrentzako aisia egitasmoa finantzatzeko.



● Ander Iñarrak eta Maite Maiorak irabazi zute Kilimon Trail lasterketa. 2:02:51 denbora behar izan zuen Iñarrak eta 2:26:58koa, Maiorak. Guztira 330 bat korrikalarik hartu zuten parte Mendaroko Txirindulari Elkarteak antolatzen duen proban.

Gabon zoriontsuak!

BM Termoplastiko eta Komposituen
Mekanizado lanak
Metal Ez-Ferrikoak
bronymec

@BronymecSA

SURYA
BELAR-DENDA

☎ 943 742 534 📞 630 878 054


📧 surya-belardenda@hotmail.com
San Frantzisko, 23 - Elgoibar



● Apirilaren 21ean iritsi zen Korrika Elgoibarrrera eta Mendarora. Goizean goiz iritsi zen gura euskararen aldeko martxa, eta bi herriak zeharkatu ostean Azkoitirako bidea hartu zuen. *Klika* lemapean, Euskal Herria zeharkatu ondoren, Gasteizen amaitu zen.

● Jon Olivares Elgoibarko Izarrako langilea (argazkian hirugarrena) *Patria* telesailerako aktore lanetarako aukeratu zuten. Jose Mari ETAko kidearen papera bete zuen. Martxoan hasi zituzten grabazioak Euskal Herriko hainbat herritan, eta tartean, Elgoibarren ere hartu zituzten telesailerako irudiak. HBO kateak ekoiztu du telesaila, eta 2020an estreinatuko du.





● Imanol Albizu *Goikoetxek* nagusitasunez irabazi zuen Hodei Iruretagoiena Izeta IV.a zarauztarraren aurka jokatu zuen harri-jasotze apustua. Demak ikusmina piztu zuen herri kirol zaleen artean eta 700 bat lagun elkartu ziren Azpeitiko zezen plazan. Bi harri-jasotzaileek hamar minutuko hiruna txanda egin zituzten bakarka 125 kiloko harri kubikoarekin. Izeta IV.k 116 altxaldi egin zituen eta bost gehiago egin zituen Goikoetxek. Apustua irabazita, 12.000 euroko diru poltsa bereganatu zuen Goikoetxek.

● Omenaldi beroa egin zioten eskubaloia lagatzea erabaki zuen Andoni Armendiari. Azken 11 denboraldietan Alcorta Forging Group eskubaloi taldeko kapitaina izan da eta azken agurra egin zioten taldekideek eta zaleek, denboraldiko etxeko azken partidari. Armendiak 18 urte egin ditu Sanlon.



● EAjk irabazi zituen Udal Hauteskundeak Elgoibarren, baina gehiengo osoa galdu zuen, eta EHBildu gailendu zen Mendaron, baina EAjrekin berdinduta zinegotzitan. Bototan nagusi izan arren, gehiengo osoa galdu zuen EAjk Elgoibarren. 2.629 boto eskuratu zituen, duela lau urteko Udal Hauteskundeetan baino 168 boto gutxiago, eta zinegotzi bat galdu zuen: bederatzi zituen, eta zortzi eskuratu zituen. EHBildu izan zen bigarren alderdi bozkatuena, 2.065 botorekin. EHBilduk gora egin zuen bototan, 2015ean baino 356 boto gehiago eskuratuta, eta horrek zazpigarren zinegotzia eman zion. Kontrara, PSE-EEK 114 boto galdu zituen, eta zinegotzi bakarrekin gelditu zen. Elkarrekin Podemosek estrainezko aurkeztu zuen zerrenda Udalera, eta botoen %5,86rekin, zinegotzi bat eskuratu zuen. Mendaron, EHBilduk irabazi zituen Udal Hauteskundeak. 451 boto eskuratu zituen, EAjk baino 39 gehiago, baina gehiengo osoa galdu zuen, eta zinegotzitan, berdinduta daude bi alderdiak. Bototan biek egin zuten gora 2015etik, eta bosna zinegotzi lortu zituzten. PSE-EEK lortu zuen hamaikagarren zinegotzia, 92 botorekin. 2.000 biztanleko langa gaitzuta, 11 zinegotzi-kargu zeuden jokoan, bederatzi beharrean. PSE-EEren botoarekin, EAjk hartu zuen alkateza.

urkotronik
OSTALARITZAN ETA
VENDING-EAN ADITUAK.
1983 GEROZTIK.

ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!

www.urkotronik.com | 943 203 112 / 902 127 137
urkotronik@urkotronik.com



● Hautsak harrotu zituen Larraskandako tiro eremuaren itxierak. Mendaroko Udalak Larraskandako tiro eremua itxi izana gogor salatu zuen Gipuzkoako Ehiza Federazioak. Tiro eremua itxi izana ehizaren eta Gipuzkoako tiratzaileen kontrako erasotzat jo zuen Ehiza Federazioak eta errespetu falta egotzi zion Mendaroko Udalari. Mendaroko Udalak Federazioari erantzun zion inguru hori interes natural handiko gunea dela eta hala jasota dagoela hirigintza planaren 10. artikuluan, eta horrenbestez, legea bete baino ez zuela egin. 1996. urtean zabaldu zuten Larraskandako tiro eremua, eta Gipuzkoako Ehiza Federazioak kudeatu du ordutik. Ehiztariak euraik trebatzeko ez ezik txakurrak ehizarako trebatzeko ere baliatzen zuten tiro eremua ehiztariak.



● Pablo Acuña Albir 36 urteko gizona labankadaz hil zuten maiatzaren 11n. Goizaldean izan zen eraso Antonio Arrillaga kalean, Elgoibarko Itzulirako izena emandako dozenaka mendizale seiretarako Kalegoen plazara hurbiltzen ari ziren sasoi hortantxe. Acuña eraso jasanean zuten lekutik metro gutxira, Giza Eskubideen Parkeko atari baten aurrean jausi zen hilotz, Usua tabernatik gertu. Albirren bikotekidea, 37 urteko emakumea, lekuan bertan artatu zuten larrialdi zerbitzuetakoek, baina Mendaroko Ospitalean ingresatu zuten gero. Erasotzaileak, berriz, ihes egin zuen, itzulirako izena emandako jende-oldean babestuta, eta Irukuruzetatik Sargoateko anoa postua bitartean atxilotu zuten. Mendizaleen kontrako norabidean Sargoatek bere bila abiatu ziren bi udaltzainek atxilotu zuten, mendizaleek egindako ohartarazpenei esker. Hilketari gaitzesteko elkarretaratze jendetsua egin zuten bi egunera Kalegoen plazan. Era berean, Albirren gorpua sorterrira, Nikaraguara, eraman ahal izateko diru-bilketa kanpaina hasi zuten haren senide eta lagunek. 4.000 bat euro batu ostean, uztailearen hasieran eraman zuten gorpua Nikaraguara.



● Ertzaintzak 3.700 marihuana landare atzeman zituen Elgoibarko industriegune bateko pabilioi abandonatu batean. Azpiegiturak marihunana landatzeko beharrezkoak diren elementuz hornituta zeuden: argiztapen berezia, haizaga-luak, aire filtroak, ke erauzgailuak... Hori guztia martxan egoteko kontsumo altuko instalazio elektrikoa zeukan pabilioiak. Horrez gain, marihuana kukuluak prestatu eta lehortzeko gunea ere bazeukan, bai eta prentsa, deshidratatzeko makina, pisua eta kukulu lehorrez beteriko kaxak ere. Miaketaren unean hiru lagun identifikatu zituzten ertzainek. Osasun Departamentuan analizatzeko laginak hartu ostean, landare guztiak errotik moztu zituzten, ondoren suntsitzeko.





● Angel Bazterretxea hil zen, 54 urtez Mendaroko abade izan zena eta herrigintzan hauspo eta akuilu izan zen gizona. Mendaro herriak dituenak baino urte dezentez gehiago egin zituen Angel Bazterretxea Keleok Mendaron, abade. 1962ko urrian iritsi zen Mutrikutik, 26 urterekin. Saturrarango abade-etxea laga eta Garagartzako mojen komentuan hasi zen kapilau. Eta geroago izendatu zuten Azpilgoetako, Astigarribiako, Garagartzako eta Altzolako parroko, hurrenez hurren. Elizako ardurez gain, baina, beste ardurak asko ere hartu zituen herrian, eta bereziki horregatik zuten herritarrek horren maitea. Guruzpe elkartearen bueltan, Mendaro ikastolaren sorreran eta Mendaro herria sortzeko prozesuan egindako lana eta garai zailenetan herriko gazteekiko izandako ardurak aitortu eta eskertu zizkieten herritarrek.



● June Loidik (Elgoibar, 1999) zeresana eman du emakumeen eskubaloiko goreneko mailan egin duen aurreneko urtean. Espainiako eskubaloiko selekzio nagusiarekin debuta egin eta gero, Iberdrola Ligako defentsarik onena izendatu zuten Zuazo taldeko jokalaria denboraldi bukaeran, hiru hautagaien artean berak jaso baitzituen boto gehien.



● Elgoibarko Izarrak antolatuta, Elgoibarko I. Koplaldia egin zuten Bolatokiko parkean, ekainaren 7an, eta publikoak Aitor Mendiluze aukeratu zuten irabazle. Hamar bertsolari aritu ziren koplatan: Eli Pagola, Aitor Mendiluze, Onintza Enbeita, Miren Artetxe, Mainer Arregi, Manex Agirre, Andoni Egaña, Odei Barroso, Aitor Bizkarra eta Uxue Alberdi. Ainhoa Mendibil eta Danele Sarriugartek jarrizko gaiak eta puntuak erantzun zituzten bertsolariek. Aitor Mendiluze (Andoain, 1975) eta Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) ailegatu ziren finalera, eta publikoko lagunek erabaki zuten irabazlea. Koplaz gain, musikak ere izan zuen lekua saioan. Sinuöse Kultur Elkarteko kide Ander Mujika, Iban Urizar, Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaletak girotu zuten saioa zuzeneko musikarekin.



● Ana Aizpiri, kazetaria eta ETAK 1988an hil zuen Sebastian Aizpiriren arreba, Covite biktimen elkarteko bozeramaile izateko aukeratu zuten. Ahazturaren arriskuaz mintzatu zen BARRENEN, eta estreinakoz, neba zuenaren inguruan mintzatu zen, ETAK hura hil eta 31 urtera. Sebastian Aizpirik 38 urte zituen eta Eibarko Chalcha jatetxearen eta Elgoibarko harategi baten jabe zen, 1988ko maiatzaren 25ean ETAKo bi kidek tiroz hil zutenean.

RPS 18312



40.
urteurrena
UZURI
optika audio

ELGOIBAR - DEBA
www.uzurioptika.com

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
943 740 359

















● Kalegoen plazako 4. atariko etxearen atzealdea behera etorri zen ekainaren 28an, eta ezker hormaren zati handiagoa jausteko arriskua zegoenez, San Bartolome kaleko bost peoretako bizilagunei etxetik irteteko agindu zieten. Horietao zenbait bizilagun zenbait astez etxera sartu ezinda egon ziren, eta etxepe horietako negoziok ere itxita egon ziren zenbait egunetan.



● Paul Rojo Mugerza (Elgoibar, 2001) Elgoibarko Institutuko ikasleak 9,74ko nota eskuratu zuen selektibitatean, Gipuzkoako notarik onena eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako bigarren notarik altuena. Guztira, 10.600 ikaslek egin dute aurten unibertsitatera sartzeko proba, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Elgoibarko institutuko 107 ikaslek egin dute, eta batek ez beste guztiek gainditu zuten.



● Europako Kirolaren Herria da aurten Elgoibar, eta hori ospatzeko, kalera atera zuten kirola ekainaren 22an. Udal kirol Patronatuak herriko elkarte eta klubekin antolatu zuen eguna, eta kirolaren festa izan zen. Herriko txokoetan kirol desberdinak praktikatzeko aukera izan zuten herritarrek, Maalatik Kalegoen plazara bitartean.




● Juanita Loiola (Mendaro, 1956) omendu zuten Mendaron, ikastolako lehenengo irakaslea. Guruzpe kultur elkartekoek proposatu zioten andereño izatea, artean 16 urte baino ez zituela. Frankismo garaia zen, eta klandestino zen ikastola. Geroztik, 47 urte egin ditu irakasle, eta ikasturte amaierarekin batera hartu zuen erretiroa, 63 urterekin. Mendaroko ikastolaren alde egindako lana eta euskara suspertzeko egindako ahalegina eskertu zioten Arno Guraso Elkarteak eta herritar talde batek antolatutako ekitaldian.

Mila esker bezero guztioi hau posible egiteagatik



*Zorionak
eta
urte berri on!*



● Iñaki Agirre omendu zuten Udalak eta Ongarri zine-klubak, uztailaren 7an, aire libreko zine emanaldietan. Otsailaren 12an hil zen Iñaki Agirre, 62 urte zituela, eta ordura arte, zineari emanda bizi izan zen. Ongarri zineklubeko arima eta motorra izan zen, eta bera izan zen baita ere aire libreko zinemaldiaren sortzaileetako bat.



● Azkoitiko Anaitasuna Kakute xake taldeko Judith Goenaga xakelariak hogeit hamar lagunen kontra jokatu zuen, joan den uztailaren 6an, Mendaron, aldi berean. Hogeitik hiru partida irabazi zituzten mendarorrek. 17-3ko emaitzarekin gailendu zen beraz Judith Goenaga. Mendaroko Xake Eskolak antolatu zuen xake erakustaldia, Uztargi tabernaren babesean, eta frontoian jokatu zituzten partidak.



● Jaime Comesek irabazi zuen TKgune ideia industrialen lehiaketaren seigarren edizioa, Usurbilen bizi den madrildarrak. Nomada Omnimotion izeneko proiektua aurkeztu zuen Comesek lehiaketara. Ingurune birtualetan fisikoki ibiltzea ahalbidetzen duen plataforma sortzeko ideia da, eta plataforma horren bitartez, erabiltzaileak edozein norabidetan ibili daitezke plataformaren gainazaletik irten gabe eta aginte kontrolik erabili gabe, gorputzaren mugimenduak direlako ingurune birtualean eragina dutenak.



● Cuatrolatas moduan ezaguna den Renault L4 auto bana 2,2 kilometroko aldapan gora igo zuten Mendaroko giza proba taldeak eta Amoro- tokoak, Amoro- toko San Martin jaien barruan jokatu zuten desafio bitxian. Lehia estuaren ostean, segundu gutxiko aldegatik irabazi zuen Amoro- toko taldeak. Igoeraren lehen zatian aurretik joan ziren mendarorrek, 2016an Lizarperainio igo zuten Cuatrolatas autoari tiraka, baina azken txanpan aurrea hartu zieten Amoro- tokoek.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisioSmás
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 903 626
www.fisio-sma.com
RPS 172/18

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailein kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizar1@yahoo.com
615 715 404

leku eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

*Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.*

*Eguberri zoriontsua
eta urte berri on!*

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA



Aita Agirre, 3, 3. solairua – 20870 ELGOIBAR
943 742 731
udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus



*Zorionak eta
Urte Berri On!*

Merry Christmas and Happy New Year

 **Meka**
Lanbide Eskola

2020



● Berezia izan zen aurtengo Txiki Eguna. Mauxitxa txaranga 50. aldiz irten zen Txiki Egunez kaleak girotzera, eta sekula baino ozenago entzun ziren txarangaren doinuak, 75 bat musikarik hartu baitzuten parte kalejiran, lehengoek eta oraingoek. San Bartolome festei hasiera eman zien txupina ere Mauxitxako kideek piztu zuten, eta orduan aurkeztu zuten Jose Alberto Ansola *Mauxitxa'*, txaranga lehenengo zuzendaria ere buruhandia ere.

● Trialeko bizikleten munduko txapelketa irabazi zuen Alvaro Gimenez mendarorak abuztuan, 9-10 urtekoen mailan. Poloniako Wadowice hirian jokatu zuten txapelketa. 16 urtez azpiko 158 trialsin gidarik hartu zuten parte, hamasei herrialdetakoak, sei kategoriatan banatuta. Gimenezen mailan 31 lehiatu ziren, eta akatsik egin gabe osatu zuten finalean ibilbidea.



ETXEPE

Lan bereziak
Grandes mecanizados

Mekanizatu handietarako adituak

Tel.: 943 741 297 / 943 740 664

Faxa: 943 744 321

www.etxepe.com

etxepe@etxepe.com





● Joseba Olazabalek autobide bazterrean jarritako *Help Trump* kartelak AEBetako zerbitzu sekretuetakoen arreta deitu zuen G7koak Miarritzen egin zuten goi bilera baino egun batzuk lehenago. Nonbait, AEBetako zerbitzu sekretuetakoek kartela ikusi, eta “mezuak nahastuta”, ertzainak bidali zituzten Olazabalen etxera, kartelak zer iradoki nahi zuten argitzeko. “Egunero bezala, protestan ari nintzenean etorri zitzaizkidan ertzainak. Dronen eta A8 autobidean dabiltzan polizia-patrulien bidez zerbitzu sekretuetakoek kartela ikusi dutela azaldu zidaten eta G7koen bilerarekin loturarik ote duen galdetu. Azaldu nien kartelak ez zuela G7koen goi bilerarekin loturarik. Askoz aurreragokoa dela nire borroka. Autobideko zaratarekin bigunduta nagoela eta panelak jaritzeko eskatzen dudala. Interneten sartu eta erakutsi nizkien azkeneko urteotan publikatu diren bideo eta abarrak, eta informea osatu eta joan ziren, lasai egoteko esanez”, azaldu zuen Olazabalek gertatutakoa.



● Abuztuko azken astean munduko zazpi estatu nagusietako agintariek goi bilera egin zuten Miarritzen, eta bilera horren kontrako G7 Ez plataformako bozeramaile lanak egin zituen Itziar Fernandez elgoibartarrak. Ongi-etorri errefuxiatuak plataformako aktibista da Fernandez, eta “injustizien kontra egin beharrak” eraman zuen hara. Poliziak kontragailurra eta aktibismoa itotzeko eginahalak egin zituela salatu zuen, baina nabarmendu zuen ez zutela lortu.



● Plazatik erretiroa hartu zuen Javier Arrizabalaga Ziarda bertsolariak, sanbartolomeetako Baserritar Egunean. Jaiotxearen izenarekin, 43 bat urte egin ditu plazaz plaza, 16 urterekin hasita. 17 urterekin irabazi zuen lehenengo txapelketa, Osinalde Saria, eta geroztik, makina bat txapelketatan kantatu du, harik eta 1991ko Gipuzkoako Txapelketan nahikoa zela iritzi zion arte.

Yeray Dobarro 2A

Eguberri on! Gabon Berdea

Urte zaharra badoa eta
badatorkigu berria
Egun politak dira elkartzeko
lagun eta familia
Kontsumo arduratsua izaten
hartu dezagun astia
Gure lur honek eskertuko du
izandako enpatia.

Eguberriak ondo ospatu
mantenduz gure ohitura
Ta bide batez maitasun osoz
zaindu dezagun natura
Mundu honetan bizi garenek
izan behar dugu ardura
Garai bateko gure arbasoek
egiten zuten modura.

Doinua: Badirela hiru aste
Egilea: DBH - 2C

2019 Elgoibar BHI



● Bi egunetan bi gazta lehiaketa irabazi zituen Mausitxak: Elgoibarko santolomeetako gazta lehiaketa eta Gipuzkoako Artzai Gaztaren txapelketa. Elgoibarkoan, Mutrikuko Goienezte baserriko gazta eta Aitor Montxol legazpiarraren Makatza gaztandegiko gazta aukeratu zituzten bigarren eta hirugarren.

● Koldo Lizarralde historialari eta etnografoa hil zen irailaren 23an, 69 urterekin. Lan kontuek ekarri zuten Elgoibarrera 1981ean, eta Elgoibarko herrigintzan eragile handia izan zen. Euskal Herriko ohituren eta bizimoduaren berri jasotzeko sortutako Etniker taldeetako kidea zen, eta Euskal Herriko Kulturaren Atlas Etnografikorako landa lana egin zuen Elgoibarren, 1988tik hil arte. 1989. urtetik, gainera, Eusko Ikaskuntzako kide ere bazen, eta makina bat artikulu, idatzi eta liburu zituen argitaratuta.



● Danobatek Hembrug enpresa herbeherarra erosi zuen merkatu berrietan posizioa indartzeko. Gogorrean doitasunez torneatzeko lanetan liderra zen Hembrug enpresa. Hannoverren (Alemania) eman zuten erosketa akordioaren berri, EMO azokaren barruan.



● Euskotribe Liga eta Kontxako bandera preziatua irabazi zituen Leire Garate elgoibartarrak, Orioko traineruarekin. Garatek Ondarrun eman zituen aurreneko pausoak, bateletan, eta 2011tik Orion dihardu arraunean. Taldearentzat aurtengoa denboraldi historikoa izan zela nabarmendu zuen BARRRENI emandako elkarrizketan.



ZA
ZURE ALDE S.L.

Jausoro plaza, 3 - behea
Elgoibar
943 531 351 / 685 708 606

Nerea Olea Lequerica
Abokatua

Zibil-Jabetza horizontala
Komunitateen kudeaketa

zurealde.elgoibar@gmail.com

ESARRI AUTOAK
MARKA GUZTIAK

943 741 480

Aitor: 606 975 730
Anton: 680 356 573
Faxa: 943 031 576

ZERBITZUA




Olaso, 17 - Elgoibar



ASESORIA
GOAR

KONTABILITATEA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASESORIA LABORALA

San Bartolome, 2 behea - Elgoibar
asesoria@asesoriagoar.com

Tel: 943 742 674 / 943 740 234
Faxa: 943 742 129



● Frankismoan kontzentrazio esparruetan edota kartzelan preso egondakoak omendu zituzten irailaren 21ean Olasoko kolonbarioan. Memoria historikoaren aldeko Elgoibar 1936 taldeak antolatu zuen omenaldi-ekitaldia eta Udal Txistulari Bandako kideek, Mautixa Txarangak eta Haritz Euskal Dantzari Taldekoek parte hartu zuten, bai eta hainbat udal ordezkariak eta dozenaka herritarrek ere.



● Maite Maiorak hirugarren egin zuen UTMB Mont Blanc-eko Utratrailean, bere estreinako ehun miliakoan. Urteko erronka nagusia zuen, eta podiuma egitea lortu zuen, gaur gaurkoz munduko korrikalari oso ena dela erakutsiz. Distantzia guztietan nabarmendu da mendararra.



● Irailaren 17an zabaldu zuten Aita Agirre kulturunea. Aita Agirre eraikina 1925. urtean eraiki zuten eta 2017an hustu zuen erabat eraikina Udalak, obrak hasteko. Udalak 2,8 milioi euro + BEZ erabili zituen kulturunea eraikitzeko.



● Gure Artea saria jaso zuen Xabier Arakistainek, arte plastiko eta ikusizkoen arloan. Saria jasotzeko unean, artearen munduan "bokazio politikoagatik" ari dela nabarmendu zuen elgoibartarrak. Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak eman zion saria.

Muruamendiaraz

www.muruamendiaraz.com
1935etik gozogintzan

Gabon zoriontsuak!



● *Euskara ala ez* ingurune digitaletan? galderari erantzun zioten aurtengo Gotzon Garate euskaltzalearen omenez antolatutako *Euskara ala ez* ziklora batu ziren hizkuntzalari eta informatikariek. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatu zuten zikloa, IMH eta Danobat Groupen babesarekin. Kronikak eta bideoak kontsultatzeko: euskaraalaezkara.eus.

● Gipuzkoako zahar etxeetako martxa Elgoibarrera iritsi zen urriaren 16an. Urriaren 7an abiatu zuten martxa Donostian eta azaroaren 18an bukatu zuten. Elgoibarren, lan gatazka konpontzeko bitartekoak jartzeko eskatu zieten udal agintariari. 115 egun zeramatza ten guzfitra greban, lan hitzarmen eske. Greban jarraitzen dute.



● Elgoibar eta Oñati bizikletaz lotu zituzten Sebas Etxaniz eta Joseba Arregi euskal presoen etxeratzea eskatzeko. Etxanizek 76 urte ditu eta 73 Arregik, eta legez 70 urtez gorako presoeri baldintzapeko askatasunerako eskubidea aitortzen badie ere, ukatu egin diete bie.



● Hiru txapelekin itzuli ziren Egañatarrak Zanbranan jokatu zuten Ehiza Xehe Txapelketatik. Gizonezkoen mailan nagusitu zen Arkaitz Egaña, erakustaldia emanda. Emakumezkoetan Leire Egañak jantzi zuen txapela eta beteranoetan nagusitu zen aita, Jose Mari Egaña.



PNEUMAX

AUTOMATIZAZIO NEUMATIKAKO OSAGAIAK



Olaso kalea, 15 eraikina, Pab. 52 - 53 - 54
Elgoibar (GIPUZKOA) - 943 74 41 44 - Web: www.pneumax.es

Gabon zoriontsuak!



● Tecmaneko lan gatazkan akordioa sinatu zuten enpresak eta sindikatuak. Tecman enpresako beharginek 105 egun zituzten greban. KPlaren arabera eguneratutako soldatak, guardiak borondatezkoak izatea eta guardiak egiten dituzten langileek gehiago kobratzea eskatzen zituzten besteak beste, eta eskaera guztiak betetzea lortu zituzten.



● Urnobotza Moto Klubak antolatuta, Euskadiko Enduro Txapelketa eta Espainiako Hard Enduro Txapelketa jokatu zituzten Idortoben, urriaren 12an. Mario Roman (Madril, 1990) pilotua gailendu zen bietan. 120 bat moto gidari lehiatu ziren.



● 2019ko Europako Kirolaren Herri Onena izendatu zuen Elgoibar Kirolaren Hiriburua eta Hirien Elkarten Federazioak. Kosiceko Unibertsitateak (Eslovakia) ebaluatu zituen Europako Kirolaren Herri izendapena jaso zuten hamar herriek urtean zehar egindako lana eta abiarazitako kirol-ekin-tzak eta Elgoibar nabarmendu zuten denen artean.



● Gure Eskuk deituta, Karakate argitu zuten 300 bat lagunek, Kataluniako agintari independentisten kontrako epaia salatzeke. Era berean, hainbat mobilizazio eta elkarretaratze egin zituzten Elgoibarren eta Mendaron, Kataluniari elkartasuna agertzeko.



SEGUR-arno
ASEGURUAK
PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA

SEGUR-arno CONSELLERIA DE SEGURADOR
LABORALU BATERATUTAKO

Gabon zoriontsuak!

Deba kalea 2, behea · 20870 **ELGOIBAR** (Gipuzkoa)
Telf.: 943 74 80 13 · Fax: 943 74 81 35
segurarno@segurarno.com · www.segurarno.com




● Serious Business talde zarautzarrak disko berria kaleratu zuen, bigarrena: *The last port session*. Aitor Badiola gitarra-jole elgoibartarren proiektu berria da Serious Business, eta Maria Armendariz (baxu elektrikoa, koroak), Antxon Sarasua (teklatuak, koroak) eta Ander Zulaikak (bateria eta koroak) osatzen dute taldea.



● Javier Goitia gernikarra eta Sonia Lopez er-muarra nagusitu ziren Karakateko igoeran. Nekez egin zezakeen eguraldi makurragorik, baina hala ere, 56 lagunek parte hartu zuten. Goitiak 34 segundoko aldea atera zion bigarrenari, Pello Osoro atleta eibartarrari. Lopezek 38:38ko denboran osatu zuen proba.



● Jon Astigarraga eibartarra gailendu zen Idotorbeko igoeran. Urriaren 12an jokatu izan da urte-etan, baina aurten azaroaren 17ra atzeratu zuten, eta Elgoibarko Lagun Taldea txirridulari taldean hazitako gaztea nagusitu zen, esprintean Jon Ibarluzeari aurrea hartuta (15:18). Jon Ibarluzea eta Ibai Konde sailkatu ziren bigarren eta hirugarren.



● Olaizaga kiroldegiko igerilekua handitzeko obrak hasi zituzten azaroko bigarren astean, eta ondo bidean, 2021. urte hasierako erabiltzeko prest izango da igerileku berria, Construcciones Amenabar S.A. eraikuntzari hamalau hilabeteko epea eman diotelako. 2.881.142,40 (BEZ gabe) euroko aurrekontua du obrak eta eta horietatik 463.000 euro Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko ditu.

BERKOA

Berrikuntza, dedikazioa eta ilusioa

2020

Zorionak eta Urte Berri On

MAKINA ERREMINTA FABRIKATZAILEA, RETROFIT ETA MANTENUA

www.berkoa.com



● Diskoa argitaratu zuen Alberto Gonzalez elgoibartarraren Muga musika taldeak. Xabier Montoiaren Anfetamiña (Susa, 1983) poema-liburuari musika jartzeko sortutako proiektua da.



● Jokin Muñozek hamargarren egin zuen Donostiako maratoian eta bere marka ondu, maratoia 2:28:13ko denboran osatuta. Donostiakoaren barruan jokatu da aurten Gipuzkoako Maratoi Txapelketa eta hor hiru garren izan zen.



● Xabier Loiolak irabazi zuen Euskal Herriko Hiru Txirlo bola txapelketa, hirugarrenegoz. Lider zela iritsi zen Loiola txapelketako azkeneko jaurtialdira eta ez zuen lehen postuari eusteko arazorik izan. Txapelketan, 23 txirlo bota zituen guztira Loiolak. Bikotekako sailkapenean Xabier Loiola bera eta Angel Ibarluzea lehengusua nagusitu ziren, bederatzigarrenez, eta taldekakoan ere haien taldea, San Migel A, gailendu zen.



● Tokikom sarietan finalista izan zen BARRÉN Azalik Onenaren kategorian, baina Debagoieneko *Puntu* aldizkariak eraman zuen saria. Goiena Telebistarentzat eta Urumeako *Kronika* egunkariarentzat izan ziren beste bi sari nagusiak.



INMOBILIARIA
AGENTZIA

Edurne Gabilondo Loyola

Zuzenbidean litzentziatua
Higiezin sektoreko peritu ofiziala

www.inmobiliariagabilondo.es

San Frantzisko 51, behea - Elgoibar

943 744 467

Gabon zoriontsuak!



● Euskaraldiaren bigarren edizioa aurkeztu zuten Elgoibarren, Euskararen Nazioarteko Egunean. Lehen edizioan, norbanakoak izan ziren protagonista, eta bigarreanean, entitateek ere era aktiboan parte hartzeko aukera izango dute.



● Europako hizkuntza aniztasunaz ohartaraztea helburu duen Erasmus+ programan parte hartu zuten Galway hiriko zortzi gazteek astebeteko egonaldia egin zuten Euskal Herrian eta tartean Elgoibarren ere izan ziren. Ekimenean, Zizurkilgo, Donibane Garaziko eta Elgoibarko gazteek ere parte hartu zuten.



● Zubi-Ondo xake taldeak antolatuta, eta Udaleko Berdintasun Sailaren babesarekin, Createch Medical Emakumeen I. Xake Txapelketa jokatu zuten Aita Agirren. Hogei xakelari aritu ziren lehian, eta momentuko Espainiako txapelketa den Sabrina Vega gailendu zen.

● Hezur-museoa zabaldu zuten Elgoibarren Jose Julian Marquezek, Artetxe kaleko 28. zenbakian, museo bitxia, berezia, eta bakarra Euskal Herrian. Historiurreko lan-tresnak eta beste hainbat pieza bildu zituen Marquezek museoa, denak berak eskuz egindakoak.



● Herriko komertzioetako erakusleihoak belztu zituzten denda txikiek, bizi duten egoera larria azalertzeko. Guztira, 98 dendarik parte hartu zuten Txankakua Merkataritza Elkartearen ekimenean. Herriarren erosketara ohiturak aldatu eta kontzientziaziaz eragitea zuten helburua, eta gustura agertu ziren emaitzarekin.



● 2019ko Europako Kirolaren Herri Onena izendatu zuten Elgoibar urrian, eta izendapenari dagokion Urrezko Bandera jaso zuen Ane Beitiak abenduaren 10ean, Bruselan, Europako Parlamentuan egin zuten ekitaldian. Alkatearekin batera, Blanca Larrañaga eta Iñigo Loiola zinegotziak, Ramon Mugica Udal Kirol Patronatu-tuko zuzendaria eta Elgoibarko hautagaitza ebaluatu zuen Kosice-ko Unibertsitateko (Eslovakia) ordezkaria ere igo ziren saria jasotzera.



● Bigarren egin zuten Leire Egaña ehiztari elgoibartarrak Espainiako Ehiza Xehetxe Txapelketan. Abenduaren 7an jokatu zuten txapelketa Andaluziako Osuna herrian.

Gabon zoriontsuak!



¡ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

TITANIOZKO INPLANTEEN ESKAINTZA BERRIA
ETA %15eko DESKONTUAK PROTESIETAN



ELGOIBAR · LASARTE-ORIA · TOLOSA

943 36 63 77

Abenduaren 24an etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi Elgoibarko eta Mendaroko bizilagunei opariak banatzera

Olentzero eta Mari Domingi martitzenean etorriko dira Elgoibarrera eta Mendarora opariak banatzera. Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaikak antolatu du Olentzero eta Mari Domingiren kalejira Elgoibarren. 9:00etan diana egingo dute Kalegoen plazan hasita. 10:00etan San Lazaro egoitzan abestuko dute, eta ondoren, Eguneko Zentroan. 11:00etan agurra egingo diete Olentzero eta Mari Domingiri Kalegoen plazan, eta segidan abiatuko dira kalejiran. Herri osoa zeharkatu ostean, umeen gutunak jasoko dituzte elizako arkupeetan. Elgoibarko lanak bukatu ondoren, Mendarora abiatuko dira. Musika Eskolak antolatuta, 17:00etan abiatuko dira Garagartza auzotik, Moxuanetik (Euria bada, 17:30ean), eta 18:30ean udaletxeko balkoira irtengo dira herritarrak agurtzera.



Euskararen aldeko tonbola eta talo postua jarriko ditu Elgoibarko Izarrak abenduaren 24an Kalegoen plazan



Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak euskararen aldeko tonbola jarriko du aurten ere, abenduaren 24an. 11:00ak aldera zabalduko dute tonbola, Olentzero eta Mari Domingiren kalejira hasten den unean, hain zuzen ere. Tonbola hau Elgoibarko eta inguruetako enpresa, komertzio, taberna, jatetxe eta beste hainbat eta hainbat erakunde eta norbanakoren laguntzari esker antolatzen du Elgoibarko Izarrak, eta aurtengoan inoiz baino opari gehiago lortu dituzte. 1.800 bat opari egongo dira guztira. Boletoak euro batean salduko dituzte, eta gutxi gorabehera, lau txartelatetik batek oparia izango du. Oparirik gabeko txartelek ere izango dute, baina, sari potolo bat eskuratzeko aukera. Izan ere, sariarik gabeko txartelen artean telebista bat zozketatuko dute 14:00etan. Saria jasotzeko plazan bertan egotea ezinbestekoa da. Elgoibarko Izarrak eskerrak eman dizkie urtero-urtero tonbola hau antolatzen laguntzen duten guztiei. Tonbolarekin batera, taberna eta talo-postua jarriko dituzte. Biltzen duten dirua Elgoibar euskaldunagoa egiteko erabiliko dute.

Ekialdeko errege magoak urtarrilaren 5ean iritsiko dira gurera

Ekialdeko errege magoen desfilea urtarrilaren 5ean izango da, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Parrokiako Katekesiak antolatzen du ekimen hau Elgoibarren. 17:00etatik aurrera jaiotza biziduna jarriko dute parrokiako atarian, eta 18:00ak aldera iritsiko dira errege magoak Santa Klara aldetik. Herri osoa zeharkatuko dute, eta Malalara iristean, San Lazaro egoitzan egingo dute geldialdia, hango egoiliarrei opariak banatzeko. Handik irtetean Kalegoen plazarako bidea hartuko dute, eta udaletxe azpian jasoko dituzte umeen gutunak. Mendaron, Arno Guraso Elkarteak antolatzen du desfilea. Lizarpetik behera iritsiko dira erregeak herrira 18:00ak aldera, eta herrian zehar ibili ondoren, ikastolako patioan jasoko dituzte umeen gutunak.



Etenaren ostean, bueltan da Munlet

Hiru urteko geldialdiaren ostean, Mendaroko Munlet bikotea martxan da berriro. Ina *Her Professor* eta Anita *Lady Fingers* bikoteak osatzen du Munlet. Izar&Star kolektiboak eskatu zien Devo taldearen tributo bat egiteko, eta dagoeneko bi kontzertu eman dituzte *Munlet vs. Devo* izenburupean. Bihar hirugarren kontzertua emango dute Bilbon, baina oraingoan Munleten abestiak bakarrik joko dituzte.



Duela hiru urte *Chupacabras* diskoa kaleratu zuten, eta Cebri lagunarekin egin zuten bira, baina, orain Cebri gaixorik dago eta ezin du beraiekin jarraitu. Munletek oso gogoan du bere lankidetzeta eta adiskidetasuna. Aurrera begira, Devo taldearen kantak grabatuko dituzte, eta opera rock estiloko lan bat egiteko asmoa dute, euskaraz. Munleten proiektu "berezienetarikoa" izango da hau. Banda oso batek hartuko du parte proiektuan, eta komiki-disko bat egongo da horren atzean. Bi lan horiek gauzatu bitartean, kontzertuak ematen jarraituko dute.

Maskarak egiteko tailerra antolatu du Taupadak otsailerako



Taupada antzerki taldeak maskarak egiteko tailerra antolatu du otsailerako. Irakaslea Kukubiltxo taldeko Josu Camara izango da, eta besteak beste, etxean pilatzen den material birziklagarriekin maskarak egiteko teknika landuko dute. Egunkari papera, kartoiak, oihalak, eta bestelako apaingarriak erabiliko dituzte. Eskulanak egiteaz gain, maskarekin egindako antzerkiera edo jai-giroan mozorrotzeko gure ohituretara gerturatu nahi dute. Bi saio izango dira, otsailaren 8an eta 15ean, 10:00etatik 14:00etara. Tailerrak 20 euroko prezioa dauka, eta interesatuek urtarrilaren 13tik otsailaren 6ra eman beharko dute izena. Horretarako bi bide jarri dituzte: taupada0@gmail.com helbide elektronikoa edo 656 416 677 telefono eta whatsapp zenbakia.



Sótano 21 taldearen kontzertua gaur, Aita Agirre kulturgunean

Joan zen astean zabaldu zuten Aita Agirre kulturguneko taberna, eta gaurko antolatu dute lehenengo kultur emanaldia. Sótano 21 talde elgoibartarraren kontzertua izango da. Talde berria da, gaztea. Pop eta flamenko arteko musika estiloa lantzen dute, eta abesti ezagunen bertsioekin batera, beraien abesti batzuk ere jotzen dituzte. 20:00etan hasiko da kontzertua.

Jirabira kalejira egingo dute gaur, Birakako dantzariak

Biraka taldeko dantzariak kalera irtengo dira gaur iluntzean. Maalako parkean hasita, Kalegoen plazara arteko kalejira egingo dute, San Frantzisko eta San Bartolome kaleetan barrena. Plazan, gabon abestiz osatutako dantza emanaldia egingo dute. Dantzaldia 19:00etan hasiko da, eta 40 minutu iraungo ditu. Elgoibarko dantzariak gain, Mendarokoek eta Soralezkoek ere hartuko dute parte, 300 bat lagunek gutzira.

Helduentzako ballet talde berria, goizetan

Urtarrilaren 8tik aurrera eta helduen eskakizunei erantzuten, Birakako helduentzako ballet talde berria sortuko du goizetarako. Klaseak Olaizaga kiroldegian emango dituzte eguazten eta barikuetan 10:00etatik 11:00etara. Taldea gutxienez sei lagunek osatutakoa izan beharko da. Informazio gehiagorako: 669 558 381 (Eva).

Maiatzean estreinatuko dute 'Patria' telesaila

Estreinaldirako egun zehatza erabaki gabe duten arren, HBO kateak aurreratu du 2020ko maiatzean estreinatuko dutela *Patria*. Miguel Salvat ekoizleak jakinarazi du oso pozik daudela orain arte egin duten lanaren emaitzarekin, oraindik muntaia lanetan ari badira ere. Zortzi atal izango ditu telesailak, eta astez aste emango dituzte guztiak, banan-banan. Telesailean ageri diren kaleko irudiak Elgoibarren, Sorluzen eta Donostian grabatutakoak dira, gehienak. Gainera, Elgoibar, Mendaro eta inguruetako herrietako makina bat lagunek egin zituzten figurante lanak, eta telesailako protagonistetako bat ere ezaguna da Elgoibarren: ETAko Joxe Mariren paperean ikusiko dugu Elgoibarko Izarako langile Jon Olivares aktore osintxuarra.



ZA! taldearen kontzertua antolatu du Sinuösek domekarako

Domekarako sorpresa iragarri du Sinuösek: ZA! talde kataluniararren kontzertua. Bartzelonatik datorren talde "zoroa" da ZA! bikote musikala. Inprobisazioa eta mugarik gabeko jolasak egiten dituzte euren musikaren bidez, eta zuzeneko bakoitza desberdina izaten da. Sorpresa modura antolatu du Sinuösek, izan ere, ZA! taldea 2013ko Sotoko Hotsak jaialdian izan zen Elgoibarren, eta aho-gustu "oso ona" utzi zuela esan dute Sinuöseko kideek. Hortaz, domekan taldeaz gozatzeko beste aukera bat izango da, Kultur Etxeko sotoan, 19:00etatik aurrera.



Domekara arte egongo da zabalik Mauxitxa txarangaren erakusketa



Joan zen barixakuan zabaldu zuten Mauxitxaren 50 Txiki elkarrekin argazki erakusketa, eta datorren domekara arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Mauxitxa txarangakoek azkeneko 50 urteotako Txiki Egunen errepasoa egin dute argazkitan, eta argazkiez gain, Txiki Egunetako bideoak ere ikus daitezke erakusketan ipini duten telebista batean. Inaugurazio ekitaldian esan zuten 50 urteotan 90 bat lagun pasatu direla txarangatik eta benetako lagunak izan direla denak. Udalari eta Danobat enpresari eskerrak eman zituzten: Udalari beti alboan izan dutelako, eta Danobati urteurreneko ekintzak antolatzen lagundu dielako.

Hertzainak taldearen '564' abestia kantatzera joateko deia egin dute

Herritar talde baten ekimenez, Hertzainak taldearen 564 abestia kantatuko dute presoen alde abenduaren 24an, eta kantaldi horretan ahalik eta herritar gehienek parte hartzea nahi dute. Instrumentuak jotzen dakitenek instrumentua eraman dezakete kantariei laguntzeko. 20:00ak alderako jarri dute hitzordua, Kalegoen plazan.

Belaustegi Baserria



JATETXEA

*Etxekoekin batera
gozatu ospakizunak
lekua har dezatela
bake eta maitasunak.
Besarkada bat bihotzez
Urte berri on, lagunak!*

www.belaustegi.com

San Migel Gaina z/g

Tel.: 943 743 102



2020

"Gau hartan ametsak zain zeuden, ilara batean. Ametsak ameslari bila, amestuak izan nahian".

Eduardo Galeano, Helenaren ametsak

ehbildu

Revent Eibabes
grupo JonAnder

www.grupojonander.com



Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

jonander@jonander.com

943 741 853

HAIR'S

ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN
EGUNA:

- Orraztu **10€**
- Garbitu, moztu eta orraztu **20€**

Abenduaren 24an eta 31n goizez zabalik!



Alcorta

FORGING GROUP

Inspiring ideas, forging solutions

SINCE 1911



www.alcortagroup.com

Sallobente Industrialdea 20870
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel: (+34) 943 74 13 50

Alcorta Forging Group-ek gabon zoriontsuak opa dizkizue

Ehun mendizale inguruk hartu zuten parte Urnobitzara eginiko irteeran

Morkaikok Herri Eskolako eta Ikastolako gurasoekin elkarlanean antolatzen dituen mendi irteeretako bat egin zuten aurreko domekan, eta ez zuten herriatik irten beharrik izan, Urnobitza mendira igo baitziren. 47 ume eta beste horrenbeste helduk hartu zuten parte urteko azken mendi irteeran. Madariagatik abiatu ziren oinez, eta 643 metroko garaieran dagoen Urnobitzako tontorrera ailegatu ostean, Lizundiatik behera Arriaga bailararaino jaitsi ziren. "Eguraldiak lagunduta, paisaia ederrez gozatzeko aukera paregabea izan genuen", adierazi dute Morkaikotik. Hurrengo mendi irteera urtarrilaren 26an egingo dute, Arno mendira.



Haur krosa egingo dute zapatuan Mendaron, eta San Silbestrea abenduaren 31n



Haur krosaren zortzigarren ekitaldia egingo dute bihar, hilak 21, Mendaron, 17:00etatik aurrera. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatzen du haurren artean kirolerako zaletasuna sustatzeko asmoz. 2008. urtetik 2013ra bitartean jaiotako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, eta lasterketak adinka egingo dituzte. Izenematea doan izango da eta lasterketa hasi baino orduerdi lehenago egin behar da irteeran, Mendarozabalen. Parte hartzaile guztiek domina eta gozoki poltsa bana jasoko dituzte bukaeran.

San Silbestrea, Mendaron

Haur krosaz gainera, San Silbestre lasterketa ere antolatzen du Mendaroko Txirrindulari Elkarteak. Urteko azken egunean izango da, abenduaren 31n. Lasterketa 17:00etan hasiko da Goñati pilotalekutik, eta bost kilometroko ibilbidea izango du. Egunean bertan eman beharko da izena, bi euroan.

Arku tiraketa tailerra eman dute Mendaron Zarta klubeko arkulariek

Eskola kirolaren barruan, eta Mendaro Ikastolako Arno Guraso Elkarteak antolatuta, arku tiraketa tailerra eman zuten aurreko zapatuan Mendaron Elgoibarko Zarta klubeko arkulariek. Lau Arkularik azalpenak eman zituzten, eta saio praktikoa egin zuten eskola-umeek, bai eta haien gurasoek ere. 11:00etan hasi eta 13:00ak bitartean jardun ziren frontoian, banan-banan, arku hartu eta frontoiko ezker paretean jarritako ituetan eskegitako globoei tiraka. Bai ikasle, antolatzaile eta laguntzaileek balorazio positiboa egin zuten zapatuko jardunaldiaz.





Karen Grigoryan armeniarrek nagusitasunez irabazi du Nazioarteko Xake Txapelketa

Xakearen hilabetea izan da gurean abendua, Elgoibarren eta Mendaron bost xake txapelketa jokatu baitituzte azken egunetan. Nazioarteko Xake Txapelketaren 29. ekitaldia izan da garrantzitsuen. Abenduaren 12tik 18ra goi mailako hamar xakelari aritu dira lehiatu eta ondoren pleno aretoan, eta Karen Grigoryan xakelari armeniarra gailendu da. Xake jokariak euren trebeziaren arabera sailkatzeko erabiltzen den Elo ebaluazio-sisteman 2.621 puntu ditu Grigoryanek, puntuaziorik altuena txapelketaren historian parte hartu izan dutenen artean, Elgoibarren lehiatu direnean izan duten puntuazioa kontuan hartuta. Zubi-Ondo xake taldeak antolatutako Danobat Nazioarteko Irekian hartu zuen parte Grigoryanek eta bigarren postua eskuratu zuen orduan, Jaime Santosen atzetik. Joan den aste honetan jokatutako bederatzita partidetan 7 puntu eskuratu ditu 25 urteko armeniarrek. 2016an txapelketa irabazi zuen Michael Oratovsky sailkatu da bigarren postuan. Errusiar jatorriko israeldarrak 5,5 puntu lortu ditu. Tomas Sosa argentinarrak egin du hirugarren, eta iaizko txapelduna, Paul Velten baionarra, seigarren sailkatu da. Umeentzako xake txapelketak ere jokatu dituzte Mendaron zein Elgoibarren. 2008. urteaz gero jaiotako hamar neska-mutil lehiatu ziren Mendaron, joan den domekan. Kilimon xake taldeak antolatu zuen txapelketa, Uztargi tabernaren babesarekin, eta xake eskolako helduak ibili ziren antolakuntza lanetan laguntzen. Bukaeran, Art Fruit fruta dendak eta Uztargi tabernak oparitutako fruta otar bana jaso zuten parte hartzaile guztiek eta mokadua ere izan zuten. Egun berean, abenduaren 15ean, jokatu zuten Elgoibarren Eskola Kiroleko xake txapelketa. Hamabost umek hartu zuten parte eta, adinka, honakoak izan ziren txapeldunak: Beñat Cearsolo, Aimar Gurrutxaga eta Unai Lopez de Sabando.

Danobat eta Uztargi Xake Txapelketa Azkarrak


Kultur Etxeko sotoa urak hartu zuela-eta, Aita Agirre Kulturgunean jokatu zuten, domekan, xake partida azkarren Danobat txapelketa. 24 xakelari lehiatu ziren, eta Koldo Urbieta Ga-bancho Barakaldoko xakelaria gailendu zen. Erik Juez Villar zarauztarrak egin zuen bigarren, eta Zamudioko Joel Rodriguezek hirugarren. Laugarren postuan sailkatu zen Markel Kerexeta izan zen lehen elgoibartarra. Mendaron jokoan dago Uztargi Xake Azkarreko Txapelketa. Hamasei lagun daude izena emanda, bi emakume eta hamalau gizon, eta txapelketa antolatzeke bi talde egin dituzte, zortzina jokalarirekin. 25 minutuko partidak izaten dira, eta une honetan lehenengo fasean daude. Lehenengo fase hori amaitzean, talde bakoitzeko lau onenek liga hasiko dute, eta hurrengo laurak, kopa. Bai ligako zein kopako finalak otsailean jokatuko dituzte. Bestalde, abenduaren 29rako Xake Azkarreko Txapelketa ere antolatu dute. Bost minutuko partidak izango dira, Blitz modalitatean jokatuko dituztenak. Abenduaren 26ra arteko epea dago izena emateko, eta interesatuek honako helbide honetara idatzita eman behar dute izena: xakemendaro@gmail.com.



Oraindik badago aukera Aspanogi elkarteari laguntzeko



Elgoibarko Kirol Solidarioa ekimenak aurrera darrai eta oraindik badago aukera Gipuzkoako Haur Minbizidunen Elkarteari –Aspanogi– diruz laguntzeko. Lagunak Pilota Eskolakoek Ikastolako frontoian jokatu dituzte partidak gaur, 19:00etatik aurrera, eta dirua batzeko itsulapikoak ipiniko dituzte frontoian. C.D. Elgoibarrek, berriz, errifak salduko ditu bihar, hilak 21, Haundik Mintxetan jokatu duen partidari, eta Aspanogirentzat izango da batuko duten dirua. Haundik Euskalduna taldearen aurka jokatu du, 16:30ean hasita. Sanlo eskubaloit taldeak joan den zapatuan egin zuen ekimenaren aldeko errifa salmenta, Alcortak Olaizagan jokatu zen partidari, eta Elgoibar Igeri Taldekoek ere zapatuan egin zuten Aspanogiren aldeko igeriketa saioa. Era berean, Elgoibarko xake taldeak ere egin du bat ekimenarekin eta itsulapikoak ipini dituzte azken egunetan antolatu dituzten hiru xake txapelketetan. Elgoibarko Udalak abenduaren 23an emango dio batutako dirua Aspanogiri.



Mugertza krosetako kartela aurkeztu dute antolatzaileek

Juan Mugertza Nazioarteko krosaren 77. ekitaldia iragartzeko kartela aurkeztu du Mintxeta Atletismo Taldeak. Karteleko argazkia WangConnection-ena da, eta kartelaren diseinua, berriz, Nerea Oteiza Zubiaurre eibartarrarena. Beatrice Chepkoech eta Helen Obiri dira argazkian ageri diren bi saltakariak. Lehen, munduko errekorren jabe da 3.000 metroko oztopo lasterketan; eta, bigarrena munduko kros txapeladuna eta munduko txapeladuna 3.000 metroko oztopo lasterketan. 2020ko urtarrilaren 12an jokatu dute Juan Mugertza Nazioarteko Krosa.

Udal Musika Banda, Gare irratizale elkarte eta Atabal saritu ditu Udal Kirol Patronatuak

Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatu zituzten eguen iluntzean musika eskolako auditoriumean. Kirol Patronatuak 19 sari banatu zituen Elgoibarko kirol taldeek urtean zehar egiten duten lanaren errekonozimendu gisa. Sarietako hiru Udal Kirol Patronatuak eman zituzten sari bereziak dira. Europako Kirol Herri izendapenarekin zerikusia eduki dute hiru sarituek: Gare irratizaleen kluba, Atabal elkarte eta Udal Musika Banda. Elgoibar Europako Kirolaren Herria dela jakinarazteko mezua, uhinen bidez munduan zabaldu zuen Gare elkarteak. 5.600 kontaktutik gora lortu zituzten, Australiako, Txinako, Amerikako Estatu Batuetako eta Europako irratizaleen artean. Atabal elkarteak, berriz, izendapenari eskaini zion aurtengo nagusien danborrada, eta Patronatuko arduradunek esan dutenez, Kirolaren Europako Herri Onenaren Elgoibarko hautagaizta "aberastu" zuen. Azkenik, Elgoibarko Udal Musika Bandak ere jaso zuen saria, irailean Herriko Antzokian



eman zuten kontzertu bereziagatik, kirolarekin zerikusia zuten piezak jo baitzituzten. Gainerako sarituek, kirol-talde bakoitzak proposatu eta aukeratutakoak, BARREN aldirikariko hurrengo alean emango ditugu, argazki eta guzti.

ILS-KO LANGILEEN PARTEZ...

ZORIONAK eta

URTE BERRI ON!!

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AurreratuA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACION

GOKI



erreformak

gabon zoriontsuak!

Olaso pol, 15 - 68 pab
Tel. 943 74 42 23
ELGOIBAR

Irizar, 1 behea
Tel. 943 76 53 42
BERGARA

Errabal, 19 behea
Tel. 943 12 57 41
SORALUZE

www.gokierreformak.com

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

Floren Cid: 647 463 436
E-posta: ibamariturgintza@gmail.com

Gabon zoriontsuak!

- BEROGAILUA
- GASA
- GASOLA
- AIRE EGONTIA
- ALTZARIAK
- MANTARAK
- OSAGIAK
- GEMIDEN KORDAZIOA
- ERREFORMAK



DOÑA MERCEDES

San Frantzisko, 21
20870 Elgoibar
Tel.: 943 742 652
943 742 137

Jai zoriontsuak!



Etorri eta teorikoa
atera ezazu 17
urte bete baino lehen!

**Jai
zoriontsuak!**



Santa Ana Kalea, 11 behea
20870 ELGOIBAR

943 741 011

elgoibar@autoescuelalarranaga.com

Mahasterreka Kalea, 10 behea
20570 BERGARA

943 761 663

**SAHATZU
HARATEGIA**

Santa Ana, 5
T943 742 048

JON ULAZIA
"SAHATZU"



Lanbroa

Pedro Muguruza, 5
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806

Gabon zoriontsuak herritar guztioi!

- EGUNEKO MENUAK ● MENU BEREZIAK ● PLATER KONBINATUAK
- BOKATAK ERAMATEKO ● PINTXOAK

ibai-ondo erretegia

943 256 028



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 628 529 252

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Esperientzia eta titulua ditut.
☎ 636 517 025

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 631 931 030

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Esperientzia daukat.
☎ 631 988 757

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka.
☎ 632 415 374

Eskola partikularrak ematen dira: LH, DBH eta Batxilergoko matematikak, kontabilitatea, ekonomia eta finantzak.
☎ 666 042 710

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, gauze edo etxeko langile moduan. Titulua daukat.
☎ 602 490 595

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 612 422 256

Josteko eskolak ematen dira Elgoibarren.
☎ 676 517 188

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile moduan.
☎ 665 528 409

Garbiketak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Gauze lan egiteko prest.
☎ 641 426 543

Garbiketak egiteko prest nago. Orduka.
☎ 637 102 725

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 631 530 562

Lan bila nabil. Esperientzia daukat adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan.
☎ 632 640 801

Goizez edo iluntzetan lan egiteko prest. Adinekoak zaintzeko eta garbiketak egiteko prest. Erreferentzia onak ditut.
☎ 677 155 611

Lanerako prest nago. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. Etxeko langile moduan edo orduka lan egiteko prest.
☎ 602 490 595

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz, eta esperientzia daukat.
☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketak ere egingo nituzke. Esperientzia daukat.
☎ 688 724 060


Eskaintzak

DBH3ko klase partikularrak emango dituen pertsona baten bila nabil.
☎ 617 386 198

Elgoibarko enpresa batean egun erdiz txofer eta biltegi lanak egiteko pertsona behar da. Curriculumla bidali: gmi-renb@gmail.com

Neska euskalduna behar da urtarritetik aurrera bi ume zaintzeko.
☎ 699 217 721

Odontologoa behar da Ermuko hortz klinika baterako. Bidali curriculumla: cl-nicadentalbajodeba@hotmail.com
☎ 652 768 569



Felisa Osoro Larrañaga

2019ko abenduaren 12an hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure irribarre goxoa eta maitasuna betirako izango dira gure artean.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Federación Española Administradores Locales Autónomos



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure Komunitateko Etxejabeen Batzarrean antena parabolikoa jartzeko eskaera egin zuten etxejabe batzuek, telebista kate pribatu gehiago ikusi ahal izateko. Etxejabe batzuk ez gaude konforme erabaki horrekin, baina hala ere, enpresa bati deituko diote, antena jartzeko. Jakin nahi nuke obra horri dagokion kostuaren nire zatia ordaintzera derrigortuta nagoen.

Legeak dio azpiegitura komunetan telekomunikaziorako zerbitzu berriak jartzea edo aurretik daudenak berritzea; energia berriztagarrien onurarako sistemak ezartzea edo baliabide energetiko berriak ahalbidetzea edozein etxejabearen eskariz adostu ahal izango dela, betiere komunitateko etxejabeen herena ordezkaturat badago bileran eta horrek partaidetza kuoten herena ordazkatzen badu.

Beraz, komunitateak ezingo du derrigortu batzarrean proposamenaren alde bozkatu ez zuen inor zerbitzu berri horien instalazioa edo aurretik daudenen mantentze lanak ordaintzera.

Hori bai, gerora norbaitek eskatzen badu instalazio berri horiek edo berriro diren horiek erabili nahi dituela, eskatu ahal izango zaio hasieratik ordaindu beharko lukeen diru kopurua, ordura arteko interes legalak aplikatuta.


ONDORIOA: Kokatutako azpiegitura berria elemento komun izendatuko da legez, beraz, mantentze lanak Komunitatearen ardurara izango dira.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Ange**, abenduaren 11n urteko bat egin zenuelako. Denbora honetan zenbat momentu polit! Muxu handi bat etxeko denon partez!



Zorionak, **Intza**, abenduaren 29an 11 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat.




Azkenean iritsi da zure eguna, **Lea!** Oso ondo pasagenuen txokolatadana eta bazkarian. Patxo bat familia guztiaren partez.



Zorionak, **Nora**, zure 11. urtebetetzean! Muxu erraldoi bat familia guztiaren partez.



Bihar 3 urte, **Unai!** Eguzti onona pasa! Zorionak denon, eta bereziki, Manex eta Xabaten partez!



Zorionak, **Iñ-tza!** Eman diozu eguzkiari lehen buelta! Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Beñat** eta **Nere**, 7 eta 5 urte egin dituzuelako. Ondo-ondo ospatu zuten urtebetetze egunak. Muxu handi bat etxeko denon partez.



Zorionak, **bikote!** Muxu handi bana zuen bederatzigarren urtebetetzean. Familiakoen partez.



Zorionak, **aita** eta **ama**, abenduaren 26an urrezko ezteiak beteko dituzuelako. Asko maite zaituztegu. Etxekoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENe astekarian edo
www.barren.eus webgunean
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

943 744 112



BARREN

Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR



idama

*Solarium-a
*Estetika
*Medikuntza tratamenduak
gorputz eta aurpegrako
*Mikropigmentazioa
*Barizak kentzeko tratamenduak
eta gehiago...

Tlf. 943744026

idamallcapaindeglaciarestetika@gmail.com

Antonieta Arriaga 4-8
barrio Santa Ana kaleak



20 BARIKUA

19:00 'Girabirakalejira'. Biraka dantza taldearen kalejira. Maalako parketik Kalegoen plazara.

20:00 Kontzertua: Sotano 21. Aita Agirre kulturguneko tabernan.

20:00 Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. San Bartolome parrokian.

21:30 Zine foruma: 'Rastros de Sándalo'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

21 ZAPATUA

10:30 Parrokiako jaiotza. Asteburu eta jaiegunetan 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era. Astelehenetik barikura, 17:30etik 20:30era.

12:00 Elgoibarko kasko historikora bisita gidatua, Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariek. Kalegoen plazan hasita.

17:00 Haur Kroza, Mendaron. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Mendarozabalen. Izenematea, ordu erdi aurretik, doan.

22 DOMEKA

12:30 Udal Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika Urain.

1. *El cachoncho* (Oscar Navarro)

2. *El murciélago* (J. Strauss).

3. *Coco* (Eduardo Moreno).

4. *Bond, James Bond* (M. Norman)

5. *Pesadilla antes de navidad* (Danny Elfman).

6. *Destellos del alba* (Ferrer Ferrán).

19:00 Sinuöseren emanaldi sorpresa. Kultur Etxeko sotoan.

24 MARTITZENA

09:00 Diana, Elgoibarko Izarrak antolatuta. Kalegoen plazan.

11:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Kalegoen plazan hasita. Antolatzaila: Elgoibarko Izarra.

11:00 Elgoibarko Izarrak tonbola eta txosna jarriko ditu Kalegoen plazan.

12:00 Udal Musika Bandaren ekitaldia, San Lazaro egoitzan.

13:00 Udal Musika Bandaren kalejira, Maalako parkean hasita.

Ondoren, Udal Musika Bandak Gabon kantak joko ditu, Kalegoen plazan.

17:00 Olentzero eta Mari Domingiren Kalejira, Mendaron. Moxuanekuan. Eguraldi txarra egiten badu, 17:30ean irtingo dira.

18:00 Presoen eskubideen aldeko Olentzeroren kalejira. Sarek antolatuta, Lanbroa taberna aurretik. Segidan, Sebas Etxanizen aldeko elkarretaratzea, Kalegoen plazan.

20:00 Kantaldia, presoen alde: Hertzainak taldearen '564 abestia' kantatzeko elkarretaratzea. Kalegoen plazan.

26 EGUENA

10:30 Eskola kiroleko izotz hockey txapelketa, Lekuederren.

22:00 Gabonetako bertso jaialdia. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Herriko Antzokian.

27 BARIKUA

10:30 Eskola kiroleko izotz hockey txapelketa, Lekuederren.

28 ZAPATUA

11:30-14:00 / 17:00-19:00 Haur parkea, Mendaroko Ikastolako jolastokian.

13:00 Sebas Etxanizen aldeko giza-katea, Kalebarren plazan.

29 DOMEKA

11:30-14:00 / 17:00-19:00 Haur parkea, Mendaroko Ikastolako jolastokian.

31 MARTITZENA

17:00 San Silbestre lasterketa, Mendaron. Mendaroko Txirrindulari elkarteak antolatuta. Izenemateak frontoian, 2 euroan.

2 EGUENA

15:30 Erregeen desfileko entsegua, Mendaron. San Agustin kulturgunean.

3 BARIKUA

15:30 Erregeen desfileko entsegua, Mendaron. San Agustin kulturgunean.

4 ZAPATUA

11:00 Elgoibar konekta 2020: Herri osoarentzako isiltasun bilkura. Elgoibarko Isiltasun Eskolak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

18:00 'Reziklator' antzerki kalejira Mendaron.

5 DOMEKA

17:30 Jaiotza biziduna, Kalegoen plazan, Elgoibarko Katekesiak antolatuta.

18:00 Errege Magoen desfilea, Elgoibarko Katekesiak antolatuta. Santa Klara auzotik iritsiko dira Elgoibarrera.

18:00 Errege Magoen desfilea, Mendaron. Alkortatik behera etorriko dira, zaldiz.

6 ASTELEHENA

11:30 Kristau ikasbidekoen meza berezia. San Bartolome parrokian.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

20:00 The Upper Room taldearen kontzertua. Gospel musika San Agustinen.

8 EGUAZTENA

12:30 Juan Mugertza Nazioarteko Kro-saren aurkezpena. Udaletxean.

9 EGUENA

17:30 Mugertza kro-seko korrikalarien bisita Ludotekara eta Gaztelekura.

19:00 Meditazioa eta hitzaldia. Elgoibarko Isiltasun Eskolak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

10 BARIKUA

21:30 Bideo foruma: 'Figuras ocultas'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

20 BARIKAKUA	21 ZAPATUA	22 DOMEKA	23 ASTELEHENA	24 MARTITZENA	25 EGUAZTENA	26 EGUENA	27 BARIKAKUA	28 ZAPATUA	29 DOMEKA	30 ASTELEHENA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez *Garitaonandia	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean Yudego
31 MARTITZENA	1 EGUAZTENA	2 EGUENA	3 BARIKAKUA	4 ZAPATUA	5 DOMEKA	6 ASTELEHENA	7 MARTITZENA	8 EGUAZTENA	9 EGUENA	10 BARIKAKUA
Egunez *Fernandez	Egunez *Fernandez	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean *Fernandez	Iluntzean -	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola

* FERNANDEZ:
Herriko Enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* IBAÑEZ:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

* ORUESAGASTI:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384

Abenduan gaez: 22:00-09:00
Zulueta - San Agustin kalea, 15 (Eibar) - 943 820 498

Urtarriletik aurrera, urte guztian, gaez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar) - 943 206 984

GABON ZAHAR FERIA

Abenduak 28, zapatua

8:30etik 14:30era

- Kalegoen plazan: barazki eta fruta erakusketa, lehiaketa eta salmenta.
- Elizpean: baserriko produktuen erakusketa eta salmenta. Gazta eta ezti.
- Aita Agirre plazan: baserriko produktuen, lanabesen eta landareen erakusketa eta salmenta.
- Giza Eskubideen parkean: baserriko produktuen erakusketa eta salmena.
- Ubitarten, Lekuederren eta Kalebarren plazan hainbat abereren erakusketa.
- Pedro Migel Urruzuno kalean burdingaiak eta nekazaritza makineria.

9:00etatik 21:00etara

Jaiotza mekanikoa, parrokiako kaperan.

10:00etatik aurrera

Baltzola eta Lagunak trikiitilarien kalejira.

10:00etatik 14:30era

Artalde Elgoibarko artisauen erakusketa eta salmenta, Maalako parkean, Artalde antolatuta.

11:30etik 14:30era

Falkoneria erakustaldia Kalebarren plazan.

11:00etan

Elgoibar Ikastolak Eusko Label marka duten harakinen laguntzarekin (Armuetan eta Ziarda), labeldun sahieski pintxoak eskainiko ditu, Kalebarren plazan.

11:30ean

Elgoibarko Kale Kantarien saioa, Kalebarren plazan hasita.

12:00etan

Urteko Gazta Onenaren XIII. Txapelketa, udaletxeko pleno aretoan, Kalamua elkarteak antolatuta. Lehiaketak irauten duen bitartean pleno aretoan Uxue Alberdi, Mañukorta eta Meabebasterretxea bertsolariak.

13:30ean

Udaletxeko pleno aretoan fruta, barazki eta gazta lehiaketaren sari banaketa.

18:00etan

Kalegoen plazan, Plazara Dantzara erromeria, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta.

21:00etan

Idi gazteen probak, Sigman. Sigma Proba-leku Herri Kirol Elkarteak antolatuta.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Si yo fuera rico'

20 barikua: 21:30
21 zapatua: 19:00 /
22:15 VOS
22 domeka: 19:00
23 astelehena: 21:30

'Granjagedon'

22 domeka: 16:30

'Frozen II'

27 barixakua: 21:30
29 domeka: 16:30

'Le Mans 66'

28 zapatua: 19:00 /
22:15 (VOS)
29 domeka: 19:00
30 astelehena: 21:30

'Star wars: El ascenso de Skywalker'

1 eguaztana: 19:00
3 barikua: 21:30
4 zapatua: 19:00
/21:30
5 domeka: 19:00
6 astelehena: 19:00



Iosu Juaristi



Iñigo Otaño



Umetako kromoak bailiran, esku batetik bestera darabiltza urteen poderioz horizatutako argazki zaharrak. Aspaldian gero eta maizago egiten duen ariketa dela konturatzen da, bakarrik bizi denetik batez ere. Banan-banan, argazki bakoitzari beharrezko denbora ematen dio, eta noizbehinka erdi itsatsirik aurkitzen dituenak pazientzia eta tentu handiz askatzen ditu, esku zimurtuen dardarari desafio eginez.

Argazki zahar bakoitzak iraganeko une eta leku konkretu batera darama, baina pentsatzen jarrita, gehiago da argazki bakoitzak erakusten ez duena, erakusten duena baino. Gehiago dira argazki bakoitzarekin burura datozkion oroitzapenak, argazkian

bertan ikusten dena baino. Nahiz eta badakien, orain urrunetik, zerutik zintzilik begiratuko balu bezala ikusten dituela oroitzapen guzti horiek, mendi magalean aurkitzen diren etxe txuri txikiak bailiran. Nahiz eta badakien, pasatako edozein une izan zena baino hobea dela ikustarazten duen prisma batetik begira ari dela, denborak higatu duen prisma distorsionatu batetik.

Norbere buruan milaka paisaia ditugula gordeta iruditzen zaio, norberaren erara ordenatu eta itxuraldatuta, eta esku batetik bestera saltoka doazen argazki horiek pasai horietan barnertatzea ahalbidetzen dioten leiho txikiak besterik ez direla. Pentsamendu horietan galduta ematen du denbora. Hain dago isilean etxea, non sukaldeko erlojuaren tik-tak lehorra, hozkailuaren soinua eta bere arnasketa besterik entzuten ez diren. Argazkiak gorde eta kalera doa, bizitza errealeko zarataren babes bila.

“Norbere buruan milaka paisaia ditugula gordeta iruditzen zaio, norberaren erara ordenatu eta itxuraldatuta”

► Gremioen gida

AROSZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@bicna.eus



AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutiz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Olaso industriagunea, 17 beheka
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaoroztegia@gmail.com

ERREFORMAK



Erosario kalea, 15 beheka - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkoa
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

ITURGINTZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tailler@pagoagasa.com
ELGOIBAR



ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheka B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, beheka
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ELEKTRIZITATEA



Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@icnmail.com
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR
Andres: 630 957 345
Pedro Migel Urruzuno, 14 beheka
20870 ELGOIBAR
Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK



658 710 898

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea
- Izurrien kontrako tratamenduak

- Aroztegiak
- Erreformak
- Igeltseritza
- Pintura

1.800 €

BANATUKO
DITUGU
10 EROSKETA
TXEKETAN



ILUMINAMOS JUNTOS
ELGOIBAR
ELKARREKIN ARGITZEN DUGU